

Goienkaria

2010eko maiatzaren 28a > Egubakoitza > X. urtea > 423. zenbakia > Doan banatzekoa



www.goiena.net



"Elkorobezalako pertsona batek adin horrekin ezin du kartzelan egon"

Jose Luis Loidi
'Jose Luis Elgoro libre' plataformako kidea > 08



DEBAGOIENA

AP-1 autobidea ia 11.000 lagunek erabiltzen dute egunero > 04

BERGARA

Martitzenetik ekainaren 6ra arte Aste Berdea egingo dute > 16

KIROLA

Oñatiko Udalak omendu egingo du gaur saskibaloit talde nagusia > 30

KULTURA

Gaur izendatuko dute euskaltzain oso Uribarren aramaioarra > 33



ANTOLATZAILEAK Antzuolako Udaleko ordezkariak, Mankomunitatekoak, Euskal Herria aldizkariak eta Gintonic ekoizpen etxeak atzo eguerdian Antzuolako plazan.

TXOMIN MADINA

JAIALDIA > MUNDUMIRA

Antzuolako kaleak beteko ditu bihar eta etzi Mundumira jaiak

ARDATZAK Kaleko giroa, musika, natura eta ondarea, eta gizarte ekimena izango dira jaialdiaren oinarriak

GARRAIO PUBLIKOA

Antzuolara autobusez joateko dei egin dute; izan ere, herrian ez da aparkalekurik egongo

POSTUAK

Inoiz baino artisautza eta gastronomia postu gehiago izango dira aurten; 61, guztira > 31-32

EKONOMIA > MEATZEAK

Udalatxetik ezingo dute harria atera

Arrasateko Udalak erabaki du etetea Cantera de Campazar enpresari emandako ikerketa baimenak; Udalatxan meategia egitea bideragarria zen aztertzeke emandakoak. > 12

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrikketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28-29
Kultura > 32-33
Gazteak > 34
Sailkatuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Zerbitzuak > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

Orain da garaia!

ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA • GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA
OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA • ERIZAINZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK

AURREMATRIKULAZIO EPEA
MAIATZAREN 31 TIK EKAINAREN 11 RA

902 11 20 25 LANBIDE@ARIZMENDI.IKASTOLA.NET
WWW.ARIZMENDIPRO.EU

Arizmendi ikastola

INGURUMENA > HONDAKINAK

Alkateak ez datoz bat atez ateko sistemaz galdetuta

IRITZIAK Alkate batzuk atez atekoa euren herrian martxan jartzeko gertu daude; beste batzuek denbora eskatzen dute

EDUKIONTZIAK Oñatiko alkate Lurdes Idoiagak bosgarren edukiontzia gurago luke; herritarren aldetik antzeko iritzia jaso du

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Hondakinen gaineko eztabaidak puri-purian jarraitzen du Gipuzkoan. Iaz martxoan, Usurbil izan zen zaborrak batzeko eredu berria, atez atekoa, ezarri zuen lehenengoa; gero, Hernanik eta, joan den astean, Oiartzunek jarraitu zioten.

Bestalde, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak –Gipuzkoako mankomunitate guztiek, Debagoienekoa eta San Markoskoa izan ezik osatzen dutena– ere bere ereduaren aldeko beste aurrerapauso bat egin berri du, Donostiako Udalak Zubietako errauskailuarendako eta bere instalazio osagarriendako jarduera-lizentzia onartu zuelako joan den astean. Horrekin batera, partzuergoko presidente Carlos Ormazabalek apustu hori berretsi zuen: "2016an, hondakinen %60 birziklatuko dira, eta soberakoak Zubietako Hondaki-

Debagoieneko Mankomunitateak datozen hilabeteotan hartu nahi du atez ateko bilketa sistemaren gaineko erabakia; baina alkate guztiak ez dira iritzi berekoak

nen Kudeaketa Zentroan tratatuko dira", esan zuen.

Debagoienean, Mankomunitateak eta udal bakoitzak erabaki beharko dute datozen hilabeteotan ze eredu jarraitu nahi duten. Mankomunitateko Gobernu Batzordeko kideek esku artean daukate Ingurumen Batzordeak joan den hilean jasotako txostena, atez ateko bilketa bideragarritzat eta gomendagarritzat jotzen zuena, eta hura aztertzen dabilta; Ingurumen Batzordeak sistema horren aldeko jarrera azaldu du, eta batzordeburu Pedro Lasagabasterrek datozen hilabeteotan bailaran sistema horri ekiteko borondatea azaldu du.

Baina, Mankomunitateak erabakitzen duenaz aparte, udal bakoitzaren erabakia izango da herrian ze sistema erabili. Bada, gai horretaz galdetuta, denetarik iritziak dituzte alkateok.



Konposta egiten.

Pedro Iturbe

ANTZUOLAKO ALKATEA

"Antzuolan poz eta ardura handiz hartuko genuke atez atekoaren erabakia"

Atez atekoaren alde dago Antzuolako alkatea, eta herrian martxan jartzeko gertu: "Mankomunitateak horrela erabakiz gero, poz eta ardura handiz hartuko genuke erabakia", esaten du. Honakoa gaineratzen du: "Herritarrei beharrezko lanabesak eta informazioa emanez gero, Antzuolak emaitza onak emango dituela ziur nago. Debagoienak ere Gipuzkoan azkeneko urteetan izan den gertakizunik itxaropentsuenaren olatua hartu behar du". Haren esanetan, "atez ateko bilketa zero zabor sistemaren bihotza da, eta konpostajearekin zein birziklatzearekin batera, Gipuzkoa zero zabor lurralde izateko bidean jar deza. Torinon, Taipei, Canberran, Melbournen, Berlinen, San Frantziskon eta beste leku askotan egiten da. San Frantziskon, hondakinen %72 biltzen dute atez ateko sistemari esker".

Aldeko jarrera honela azaltzen du Pedro Iturbek: "Hondakinak lehengaiak dira, aberastasuna ematen dutenak. Azken batean, hondakin organikoak dira arazoaren muina. Hondakin organikoen %100 bildu behar da selektiboki, eta atez atekoa da hori lortzen duen sistema bakarra".

Errauskailuaz galdetuta, hauex dio: "Erraustegiak debekatu egin behar dira. Erraustegiak onartzea, ohikoak edo gasifikazio bidezkoak, minbiziari atek zabaltzea da". Eta gehiago esaten du: "Non jarri nahiko dute bigarren errauskailua Gipuzkoan? Debagoienak daukan biztanle kopurua kontuan hartuta, ez da zaila erantzuna ematen".

Oxel Erostarbe

ELGETAKO ALKATEA

"Hiru hilabeteetan egin gura da hiru urtean egin ez dena; ez dut hori ulertzen"

Elgetako alkatearen iritzi, "erabilera politikoa egin gura da zaborraren kudeaketarekin: ANVn alde batetik eta EAJn bestetik". Eta hauxe gaineratzen du: "Ez dut ulertzen zergatik egin gura den hiru hilabeteetan hiru urtean ez dena egin". Gehiago dio: "Bakoitzak datuak bere alde erabiltzen ditu, eta nik uste erabakiak hartzeko datu objektiboak behar ditugula. Horretaz gain, argi esan behar da zer egingo den sailkatuta batzen ez den zaborrarekin".

Hortaz, Elgetan ipintzeko gertu egongo litzatekeen galdetuta, "denbora" behar dela esaten du: "Herritarren ohiturak ezin ditugu egun batetik bestera aldatu. Nik atek ez dizkiot ixten ez bosgarren edukiontzia eta ez atez atekoari, baina erabakia egokia izateko, denbora behar da".

Errauskailuari "alternatiba" ere ikusten dio Oxel Erostarbek: "Zaborra modu selektiboan jasotzeko modu eraginkorrak jarri behar dira martxan, eta nahastuta geratzen den soberakinarekin Aralarrek egiten duen proposamena da lehenengo tratamendu termiko-mekanikoarekin bolumena gutxitzea eta birziklatzea, eta ondoren, energia lortzeko balio duen frakzioekin (plastikoak, egurra...) gasifikazio plantaren bitartez energia berriztagarria lortzeko".

Etorkizunaz galdetuta, bere iritzi, "bakoitza gure etxean zaborra sailkatzen hasten ez bagara, neurriak hartu beharko dira; bosgarren edukiontzia pauso bat izan daiteke, eta atez atekoa, bigarrena".

EUSKAL HERRIKO LESBIANA, GAY, TRANSEXUAL ETA BISEXUALEN ELKARTEA
GEHITU.ORG

informazioa eta laguntza

943 45 17 22
infasis@gehitu.org

2010 TRANSFORMAZIOURAKO URTEA



GOIENKARIA



Hondakin organikoendako edukiontzia, Aretxabaletan.

GOIENKARIA



Hondakinak ateratzeko kuboak, Usurbilen.

GOIENKARIA

Lurdes Idoiaga

ONĀTIKO ALKATEA

"Atez atekoaren aurka ez nago, baina gurago dut bosgarren edukiontzia"

Onātiko alkateak argi dauka bere aukera: "Atez ateko bilketaren aurka ez nago, baina gurago dut hondakin organikoendako edukiontzia. Birziklatze maila handia lortu dugu Gipuzkoan 10 urtean, beste lurralde batzuen hiru-koitza, eta maila hori handitzeko

borondatezko sistema iruditzen zait egokiena, bosgarren edukiontziaarena, alegia", esaten du. Gai horren gainean "onātiar askori" galdetu ondoren, honakoa dio alkateak: "Jende askok esan dit ez litzaiokeela gustatuko atez atekoa ipintzea, orain behintzat".

Errauskailuaren gainean galdetuta, haxe da Idoiagaren iritzia: "Atez ateko bilketak ez du errauskailua kentzen; hori argi eta garbi esan behar da. Azterketa aurrerakoieneke ere esaten dute hondakinaren %20 ezin dela birziklatu. Hortaz, atez

atekoak zein edukiontziek, momentu honetan, bi irteera dituzte: errauskailua edo zabortegiak. Zabortegiak ixten dabil-tza, zikinak eta kutsakorrak dire-lako. Nik, bi aukera horien arte-an, gurago dut errauskailu segurua eta babestua".

Carlos Ormazabal > Hondakinaren Partzuergoko presidentea

"Europako herri aurreratuenek erretzen dute gehien"

L.K. > BERGARA

Carlos Ormazabalek dioenez, "atez atekoaren zein 5. edukiontzia-aren bidez, baztertutako hondakin frakzioaren %35 inguru ken daiteke".

Ze sistemarekin birziklatzen da gehiago?

Katalunian, atez ateko bilketa populazioaren %4 baino gutxiago-rendako ezarri da, eta 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrie-tan. Maresmeko partzuergoko 28 herrietatik seik atez atekoa aukeratu zuten, eta gainerakoek bosgarren edukiontzia. Bi sisteme-kin, baztertutako frakzioaren %35 inguru ken daiteke.

Birziklatzen ez den zaborra errauste plantan erretzea da alternatiba bakarra?

Hondakinak kudeatzeko zuzentarau-markuaren arabera, berriz erabili, birziklatu edo konpos-tatu ezin daitezkeen hondakinak energetikoki balorizatu behar dira. Gaur egun, hori bermearekin egiteko modu bakarra da energia berresku-ratzeko erretzea.

Osasunarendako kaltegarria da?

Europako Batasuneko legeak betetzen dituzten errauskailu modernoek kutsadura eta, ondo-rioz, osasunean duten eragina hutsala da. Egindako azterketa guztiak bat datoz esaten etxeko



GOIENKARIA

sukaldeek eta berogailuek zirkula-zioak edo industriak baino gutxiago kutsatzen dutela. Osasunerako Mundu Erakundeak, Eusko Jaurlari-tzako Osasun Publiko Zuzendaritzak eta beste arduradun batzuek iritzi ona agertu dute errauskailuek ingurumenean eta osasunean duten eraginaz hitz egiterakoan. Horrega-tik, errauskailuak hiri erdian egiten dira Europako ipar eta erdialdeko herrialde askotan: Paris, Viena, Londres, Niza, Monako, Bonn, Stockholm...

Noizko egongo da gertu Zubietako errauskailua?

Aurreikuspena da planta eginda eta lanean hastera 2013an. Urte

horretan itxi beharko dira Gipuzko-ako hiru zabortegiak.

Erraustegiak energia sortzen du?

Energia sortzen du, eta hori oso garrantzitsua da munduan dagoen energia-krisi larri honetan; baina ez hori bakarrik, energia hori berritu egin daiteke. Errausketa, energia berreskuratzeak, hondakinek duten energia-baliabideak aprobetxatzeko modu iraunkorra da.

Zenbat birziklatzen dugu gaur egun Gipuzkoan?

Dauzkagun azkeneko datuek diote 2009an birziklatzera bidali genituela sortutako hiri-hondakinaren %40.

Eta zein da helburua?

Batzar Nagusiek onartutako Aurrerapen Dokumentuaren arabera, 2016rako %46,2 birzikla-tzea eta %10,8 konpostatzea da helburua; baina seguruenik azkenean gehiago izango da.

Europako herrialde aurreratuenek zer egiten dute birziklatzen ez duten hondakinekin?

Birziklatzen eta konpostatzen aurreratuenak dira ere hondakin gehien erretzen dituztenak: Suedia (%49 eta %3, hurrenez hurren), Herbehereak (%39 eta %1), Belgika (%36 eta %5) eta Alemania (%35 eta %1).

#Gipuzkoa

herrilan eta azpiegiturak

lan munduratzeara

enpresei laguntzea

teknologia eta berrikuntza

Krisiaren aurkako 2010 Plana

100 milioi euro

Gipuzkoan badugu Plana:

Inbertsio publikoa azkartzea, enplegua sortzea eta gure enpresei laguntzea, berrikuntzaren aldeko apustu irmoa dela medio.

GIPUZKOA zurekin, aurrera

AZPIEGITURAK > AP-1 AUTOBIDEA

AP-1 autobidea ia 11.000 lagunek darabilte egunero

Autobidea guztiz zabaldu eta urtebetera, %45 igo da zirkulazioa Maltzagatik Etxabarri-Ibiñara doan autobidean

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Urtebete da AP-1 autobidea guztiz zabaldu zutela eta %45 handitu da zirkulazioa, tramu guztiak zabaldu eta urtebetera, batez ere ibilgailu astunei dagokienez (%57).

Gipuzkoako Foru Aldundian pozik daude datuek erakusten duten joerarekin, gero eta gehiago direlako AP-1 autobidea erabiltzen dutenak eta etorkizunean gehiago izatea espero dutelako. Arlabango eta Gatzagako mendentetatik egunero igarotzen diren 9.000 ibilgailuetatik zati handi bat "irentsi" du AP-1 autobideak.

Autobideko lehen tramua (Eibar-Bergara) zabaldu zenetik, urtetik urtera geroago eta ibilgailu gehiago dabil: 2004an, 6.946 ziren; eta 2010ean, 15.795.

Gaur egun, batez beste, eguneko 10.800 lagunek darabilte autobidea tramu osoan. Halere, badira tramu batzuk beste batzuk baino gehiago erabiltzen direnak. Eibar eta Bergara artekoa da zirkulazio handien duena, justu urte gehien zabalik daroatzan zatia. Esan bezala, 15.795 lagunek darabilte eguneko. Bigarren zati

erabiliena da Bergara iparralde eta hegoaldea lotzen dituen (12.192) eta, ondoren, Bergara eta Arrasate (11.711) artekoa.

IRTEERA OPERAZIOAN, GEHIEN

Uda sasoian, uztailean batez ere, irteera operazioarekin bat egin duenean, erabiltzen da gehien AP-1. Iaz uztailean, esaterako, 20.000 lagunek erabili zuten zirkulazio handieneko egunetan. Abuztuan ere asko erabili zen AP-1 autobidea (16.500 ibilgailuk, eguneko).

Ibilgailuak, eguneko, AP-1 autobidean

	2010	2009
Eibar-Bergara	15.795	11.521
Bergara iparra-Bergara hegoa	12.192	8.378
Bergara-Arrasate	11.711	6.892
Arrasate-Eskoriatza	9.284	
Eskoriatza-Luko	10.523	
Luku-Etxabarri	6.074	

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EKONOMIA > GREBA SEKTORE PUBLIKOAN

Grebak jarraipen zabala hezkuntzan eta udaletan

Osasun arloan ez zen horren nabaria izan martitzeneko grebaren eragina

TXOMIN MADINA > ARRASATE

Defizita murriztu eta ekonomia bideratzeko Espainiako Gobernuak proposatutako murrizketa neurrien harira, ELA, LAB, EILAS, ESK, EHNE eta Hiru sindikatuek martitzenerako egindako greba deialdiak eragin nabaria izan zuen Debagoiengan. Batez ere, udaletan eta ikastetxeetan. Osasun etxeetan apalagoa izan zen eragina.

Ikastetxe publikoetan, Bergara, Antzuola eta Elgetako herri eskoletan jai izan zuten martitzenean. Bergaran jaietan ziren. Beste herrietan, zentro guztiek bat egin zuten grebarekin. Zenbait kasutan, baina, esaterako Oñatiko Larraña-Zuazola institutuan, zenbaitzuek eskolara joan behar izan zuten.

UDALETAN, IA DENETAN

Udaletan, Elgetan izan ezik, beste guztietan bat egin zuten grebarekin. Esaterako, Arrasaten udal langileek greba egin zuten eta udaltzainen zerbitzu minimoak bakarrik egon ziren. Aretxa-

baletan, Eskoriatzan eta Oñatin berdin. Antzuolan, Aramaion eta Leintz Gatzagan greba egin zuten eta ez zen zerbitzu minimorik egon. Mankomunitatea ere itxita egon zen, Arrasaten.

OSASUNA: ERAGIN TXIKIAGOA

Osasun arloan grebak ez zuen horrenbesteko jarraipenik izan. Osasun etxe eta ospitaleetan zerbitzu minimoak bermatzea eskatu zuen Jaurlaritzak; greba egin edo ez, langile bakoitzaren erabakia izan zen, gainera. Bestalde, Zubillagako suhiltzaile etxean normal lan egin zuten.

DEITZAILEAK POZIK

Jaurlaritzak eta sindikatuek greba egunaren balorazio ezberdinak egin zituzten: Idoia Mendia Jaurlaritzako bozeramaileak esan zuen grebak ez duela "arrakasta handirik" izan. Grebaren deitzaileek, bestalde, Hego Euskal Herriko lau hiri-buruetan egin zituzten mobilizazio nagusienak eta pozik agertu ziren grebak izandako jarraipenarekin.

DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA

AURREMATRIKULA / Maiatzaren 31tik Ekainaren 11ra • MATRIKULA / Uztailaren 7tik 13ra



ARETXABALETAN



Erdi Maila:


- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Karrozeria
- Ibilgailuen elektromekanika

Goi Maila:

- Metal eraikuntzak
- Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
ia@iaretxabaleta.com • www.iaretxabaleta.com

BERGARAN



Erdi Maila:

- Mekanizazioa
- Administrazio kudeaketa
- Instalazio elektrikoak eta automatikoak

Goi Maila:

- Diseinua fabrikazio mekanikoan
- Administrazioa eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

Espezializazio Graduondokoa:

- Hotzeko estanzak

Miguel Altuna GLHBI, Bergara
Ibargarai, 1 • 20570 Bergara
Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40
imaltuna@sarenet.es • www.imaltuna.com

OÑATIN



Batxilergoa (Matrikula / Uztailaren 1etik 6ra):

- Zientzia Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak

Heziketa zikloak:

- Mekanizazioa
- Linea Eroanbideen eta Makinen Mantenu Elektromekanikoa
- Natur Ingurunean Kirol Ekitzen gidaritza

RM Zuazola - Larraña Institutua
San Lorentzo, z/g • 20560 Oñati
Tel.: 943 78 21 50
onatikobhi@goieskola.net • www.onati.net

POLITIKA > PRESOAK

Ekitaldi jendetsua Joxepa Arregiri azken agurra emateko

Jesus Mari Zabarte presoaren ama eta Etxerat elkarteko lehendakaria zen Joxepa Arregi

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Eguaztenean egin zioten azken agurra Joxepa Arregiri. Jesus Mari Zabarte preso politikoaren ama eta Etxerat elkarteko lehendakaria zena astelehenean hil zen Arrasaten 91 urterekin.

Ehunka lagun bildu ziren Musakolako Santa Teresa eliza-
ren kanpoaldean omenaldi berezia egiteko. Ohorezko aureskua eta lore eskaintza egin zioten. Jon Maia eta Jokin Labaien bertso-lariak bertso sorta bat abestu zuten, eta Ines Osinaga Gose taldeko abeslariak doinu bat abestu zuen Arregiren omenez. Etxerat elkarteko ordezkariak hartu zuten hitza ondoren, eta elkarteko lehendakari euskal preso politikoen kolektiboaren alde egindako lana goraipatu. Txalo zaparrada batekin amaitu zen ekitaldia. Semea ez zen hileta elizkizunean izan.



Musakolako Santa Teresan elizan egin zioten azken agurra.

TXOMIN MADINA

OÑATIN, ELKARRETARATZEA

Gaur, hileko azken egubakoitza, elkarretaratzera joateko dei egin diete Oñatiko ESK, LAB, EHNE eta STEE-EILAS sindikatuek herritarrei. "Euskal preso politikoen" alde hilero egiten dute elkarretaratzea herriko eragile ezberdinek deituta; bada, oraingoan, deialdia sindikatuena izan da. Elkarretaratzea plazan izango da, 20:00etan.

Eskaera oso zehatza da: gaitasun larriak edo sendaezinak dituzten presoak etxeratzea; kondena beteta dituzten presoak etxeratzea; eta, euskal preso politikoa Euskal Herriratzeara.

Dispersioaz gain, senideei egindako legez kanpoko miaketak salatu dituzte. Jaenen adibidez, Oñatiko Joseba Arregi dago han, ia zortzi hilabete daramatzate aurrez aurreko bisita barik.

OSASUNA > KOLON ETA ONDESTEKO MINBIZIA

Oñatiko anbulatorioa prebentzio programan

Osakidetzak irailera arte proba egiteko gonbidapen gutunak bidaliko ditu etxera

A.E. > OÑATI

Osakidetzak kolon eta ondesteko minbizia goiz antzemateko programa jarri du martxan. Hainbat osasun etxetan prebentzio probak egingo dituzte; Debagoienez, Oñatiko anbulatorioak hartuko du parte programa horretan.

Programa horren bitartez, 50 eta 69 urte bitarteko gizon eta emakumeei minbizia garaiz antzemateko proba egingo zaie. Aurrez, hori bai, proba egiteko gonbidapen-gutunak bidaliko zaizkie etxera hemendik eta irailera bitartean.

MINBIZI OHIKOA

Kolon eta ondesteko minbizia tumorarik ohikoena da Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren artean. Urtero 1.600 lagun baino gehiagori diagnostikatzen zaie, eta 2.000 pertsona inguru ospitaleratuak izaten dira gaitz horregatik. Baina prebenitu egin daiteke.

Gorotzean dagoen odola aztertuta egiten dituzte probak. Hala, gonbidapen-gutunarekin batera etxean jasoko dute herritarrek proba egiteko beharrezko material guztia. Proba egin nahi dutenek hodi batean gorotz kopuru txiki bat sartu eta Oñatiko osasun etxean jarri dituzten kaxatxoetan utzi beharko dute.

KOLONOSKOPIA

Arrasateko laborategian aztertu ondoren, Osakidetzak gutun bitartez bidaliko die emaitza programan parte hartu duten herritarrei. Positibo ematen duten herritarrei, kolonoskopia proba egingo diete.

%6 POSITIBO

Oñatin 2.500 lagun ingururi egingo zaie minbizia detektatzeko proba. Horrelakoetan ohikoa da %6k emaitza positiboa ematea; horregatik, prebentzio kanpainan parte hartzearen garrantzia azpimarratu dute programaren bultzatzaileek.

Gainera, minbizi mota horretatik babesteko, haragi gorria murriztea, kirola egitea eta alkohola eta tabakoa ekiditea gomendatzen dute, besteak beste.



LANDER MUÑAGORRI

Mintza Egunean parte hartzeko deia

Ekainaren 6a Euskal Herri osotik etorritako mintza lagun topaleku izango da Arrasate. Antolatzaileek herritarrei jaiari parte hartzeko dei egin diete. Eguneko ekitaldi garrantzitsuenak bazkaria izango da; herriko plazan izango da, 14:30ean, eta 500 txartel atera dituzte. Arratsalde partean erromeria izango dute Kataia taldearekin.

> JENDARTEA

Independentziaren aldeko aldarria Bruselaraino eramango dute GazteHerriakoek bihar

GazteHerriakoek Bruselara, Europako Batasuneko egoitzaren aurrea eramanez gura dute independentziaren aldeko aldarria bihar, zapatua. "Bada garaia gure aldarria nazioartera zabaltzea, eta Europako Parlamentuaren aurrean gure egoera salatu eta eskubideak exijitzea", adierazi zuten prentsaurrekoan. "Etorkizunerako nahi dugun Euskal Herrian bizi izateko aukera ukatzen zaigu", gaineratu zuten. Hala, "irtenbide bakarra independentzia" dela azaldu zuten. Ekintza horrekin bat egiteko dei egin diete herritarrei.

gizarte ekintza

hezkuntza

NAZIOARTEKO PROGRAMETAKO PARTAIDEENTZAKO LAGUNTZAK

Ingalaterra, Alemania, AEB, Frantzia, Kanada, Italia...

Erasmus edo Leonardo bezalako **nazioarteko programetan** parte hartzen dutenei **kutxaren Gizarte Ekintzak** laguntza ematen die urtero. Zeinahi dela ere zuk aukeratutako herrialdea, haxe duzu laguntzari buruzko informazioa jaso eta eskabidea egiteko unea.

Laguntzak eskatzeko epea: 2010eko maiatzaren 15etik ekainaren 30era.

2010
DEIALDIA

2010
EKO

www.gaztekutxa.net

jakin behar duzun guztia hemen

Agur aita
I'm going to NY

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net



zabalik

Manu Arregi

Estralurtarrak

Dakizuen bezala, Stephen Hawking-ek adierazpen harrigarri batzuk egin ditu. Estralurtarrak izan, izango direla, baina hobe herekin kontakturik ez badugu, agian heren asmoak ez direlako onak izango. Erantzun onena Galiziako umorezko saio bate-tik eman diote. Galegoz dago, baina ulertuko duzue: "Stephen Haw-king sabe moito de buracos negros, pero de aliens non ten nin puta idea". Hau da, Hawking-ek bere gaiez asko jakingo du, baina, arlo honetan, bere iritziak ez du zureak edo nireak baino gehiago balio.

Izugarri handia da Unibertsoa. Carl Saganek zioen bezala, Uni-bertsoko izarrak munduko hondartza eta basamortu guztietan dau-den harea aleak baino gehiago dira. Hemen sortu bada eta hainbeste aukera izanda, nola ez da ba bizitza inteligentea beste toki batzue-tan ere izango? Baina hori gauza bat da eta beste bat inteligentzia horre-kin kontaktatzea.

1974an Saganek berak eta Frank Drakek Areciboko erradiotelesko-pioarekin mezu bat bidali zuten M13 izena duen izar multzo bate-ra. 300.000 bat izar dira han. Izar horiek 25.000 argi urtera daude. Hau da, inork mezu hori jasotzen badu eta erantzuna bidaltzen badu, 50.000 urte barru helduko da erantzuna.

Gauzez zerura begiratzen badugu eta edozein izarretan fijatzen bagara, oso erraza da izar hori 400 bat argi urtera egotea. Gure gala-xia, Esne Bideak, 100.000 bat argi urte neuritzen du puntatik punta-ra. Eta, gertuen dagoen galaxia, Andromeda izena duena, 2.000.000 argi urtera dago. Argiaren abiadura gaindi ezinekoa denez, nola etorriko dira ba estralurtarrak hona?

Baten batek esango du hemen direla dagoeneko. Zer dira ba, bestela, OVNIak? Inork ez ditu kanpoan gauzez astronomiazaleak baino ordu gehiago botatzen. Eta guk ez dugu OVNIrik ikusten. Zer-gatik izango da?

"Gertuen dagoen galaxia, Andromeda, 2.000.000 argi urtera dago"

usteak uste

Larraitz Zeberio

Irabaziz gero, 500.000 euro

Irratian entzun dut, autoan nindoala. Mundiala irabaziz gero Espainiako selekzioko jokalaria bakoitzak 500.000 euroko saria jasoko duela aipatu dute. Mundiala irabaztea ez da erraza izango, baina iraingarria egin zait hainbeste murrizketa egitea tokatzen zaigun garai honetan hori entzutea.

Beste hedabide batean entzundako datua ere ondo grabatuta gelditu zait. Krisiagatik egoera larriena bizi duten europar estatuek dituzte futbol liga garestienak, eta Espainia eta Italia aipatu zituzten. Zenbait gauza ez ditut sekula ulertuko!

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

Kontua haizean ote?

Pello Zabala

<http://berria.info/blogak/pellozabala/>

Haize-egunak ez nuke esango, haizeen egunak, agian, bai; haizeen erreparo egunak ere, ez legoke gaizki. Erabat haizatu ote naiz?

Nondik nora nabilen?

Maiatz xeble honekin harrituta. Lehen 16 egunetatik 10.a besterik ez zen libratu euri zarrastada bat edo beste jasotzetik. [...] Edozein moduz ere, 16 egunetan bustitik eta haize genero beretsutik, fijo. Hurrena, beste 11 egun eguzki-tsuago, baketsuago, laket eta maitagarri hartzeko tamainako-ak. Aldatzen hasi beharko, eta noiz izango? Gaur, goizetik arratsera 4 haize moeta txanda-katu diren honetan... egia da bat bera ere ez dela ibili panpa-rroi, oso disimuluan baizik, atezu dagoena bera ere oharta-razi nahi ez bailuan, halaxe... baina eguna seinalatua egon: aspaldiko koarta-tenporen hasiera gaurtze izan baita... Lehen hamabostaldi eurtsutik hobekuntzara 3 egun

kosta zitzaion, pausaje umilean narrastatuz, eguzki argitara iristen. [...] baina, gaurko hodeitxoan jolasa, liburuan ez bada ere, filmean gordetzeko merituak zituen izan da. Gozatu ederrez laketu naizela esan beharko, hain merkea izanik, begiratu eta errepara-tzea besterik ez baitzait kosta. Nik ez dut beste kasturik egin. Garestiago ibiliko ziren kanpofuboleko lehen harria izkutatu dutenak: noski, harria belazetik izkutatu behar, jokuan harriak bistan, Iturrigo-rrin behintzat, azkazal franko apurtarazi zizkiguten eta...

Garesti eta merke aritu garenez, kontua pasako dizut merke-merke orain. Kontua zera da: gaurko haize jiroak gogoan hartu eta, egunez egun, hala nahi bazenu, –gero ez etorri zein haize ibili den galdezka– gaur zortzi arte erreparatu behar diezula hurrengo egunetako haize xuabe eta disimulatu horiei eta beren arteko joku guztiei. Jokua baita kontua, SanMames berrian bezalaxe, jokua hemen ere –hemen merkeago, hori bai!–... Baina, beldur naiz haize-joku gehiegi ote datorren uda on bat ekartzeko... Ni erreparo-an, badaezpaderean...

koplak

Xabier Igoa

Bertsolari gazteen festa

Arabian bertsoetan badago nibela, hargatik jokoan da Legution txapela!

Le(he)nengo gaztetxoak ta gero gazteak, merezi izango du hara joateak!

Gainera bazkaria bi final artean, eta herri kirolak bazkari ostean!

Gero gazteek festa dute Ubidean, bertso-festa gehiago izango dute han!

Etorri denok hara denbora hartuta, guztiok baitzaudete han gonbidatuta!

Hantxe behar dutela denek erakutsi, larunbat atzaldea hontarako utzi!

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak eta Goiena2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziorrtza Martin, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiarrak **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria



LAGUNTZAILEAK



Euzko
Jaurlaritzak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Bete gabeko gauza gehitxok, betekada galanta (EAJren erantzuna Iñigo Arregiri)

Ignacio Arriola
(Bergarako EAJ-PNV)
Bergara

Bergarako bizilagunen onerako ez baizik bere mese-detan aritzea leporatu berria dio Eusko Alderdi Jeltzaleari Iñigo Arregik (GOIENKARIA, 2010-05-07). Idazki honen bidez Arregik egindako salaketak ukatu nahi ditugu eta Bergarako EAJ herriaren eta bergararren alde nola ari den azaldu.

Hiru urte igaro dira EAE-ANV gure Udala gobernatzen hasi zela. Une aproposa dugu, beraz, Bergarako azpiegituren kudeaketan zer bidetatik joan den aztertzeko.

EAE-ANV udal-agintera iritsi zenean, EAJren esku zegoen aurreko udal-gobernuaren plangintza osoa gelditu zuten, egiten ari ziren egitasmoak izan ezik: Zabalo-tegi aretoa, adibidez. Eske-rrak asmoa ekintza bihurtzen ari zen EAEko taldea agintera iritsi zenerako. Hala, hasita zegoena bukatu eta gaur egun badabil Zabalotegi aretoa, Bergarako herritarrentzat ateak zabalik. Ezin gauza bera esan Zinea Orain egitasmoaz, 2007an halako eskea zeukana eta EAE-ANVren bermea. 2010. urtean gaude eta oraindik ez dakigu non jarriko duten Zinea Orainen gunea, horretantxe Alderdi Jeltzaleari hainbestetan kargu hartu zioten arren. Orain, ordea, ez dirudi hain premiazkoa denik.

Halaber, San Martin ikastetxea Martinez de Iralan kokatzeko konponbideari alto eman zioten... eta hara non etorriko hiru urteren buruan Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren erabakia: konponbide horrexen alde egin du. Zoritxarrez, legealdiaren hiru laurdena joan da erabakia zegoena erabakitzerako. Gainera, ez da onartzekoa erabakia ofiziala dela jakin arren, EAE-ANVk San Martin ikastetxeko gurasoak deitu eta hauei sinestarazten saiatzea Agorrosingo atletismo-pista dela irtenbiderik onena. Mespretxuzko jarrera adierazten du eta jokaera axolagabea, Bergarako bizilagun askoren interesen kalterako baita.

Bestetik, erabilpen anitzeko aretoa Seminarioko elizan

kokatzeko erabakia ez atzera ez aurrera geratu zen, gelditu-ta. STOA izeneko elkarte bat kontratatu zuen EAE-ANVk; bada, elkarte hori ondorio batera iritsi zen: erabilpen anitzeko aretoa kokatzeko tokirik egokiena Seminarioko eliza dela. Konforme ez eta, hiru urteotan udala gobernatu duen indarrak herritarrek deitu ez ditu ba konponbiderik onenaren diseinuan esku hartzera. Gauza bat da herritarren parte hartzea bultzatzea eta bestea bazter-rak nahastea. Herri-agintariak kontu handia izan beharko luke zerbitzatu behar duen herria alferrik ez erabiltzen. Kontu handia herritarrentzat zama eta enbarazu ez izaten. Ardura handia, udal herriaren eragile izaten.

Gatozen orain permutari buruzko auzira. Gezurretan ari garela salatzen digute. Ikus ditzagun, beraz, datuak. EAE-ANVk dio Arrizuri jauregia dela UNEDentzako aukerarik onena eta baita Bergararentzat ere. Ez dauka-gu zalantza izpirik UNEDen-tzat ez dagoela irtenbide hoberik: Arrizuri dugu Bergarako jauretzerik bikai-nena eta toki onen-onenean kokatua. Baina kontua da Bergararentzat ez dela eraba-kirik hoberena. Hor dago koxka. Jauregia erabiltzeko gai izan behar dute bergara-rrek, guztientzat behar ditu ateak irekita Arrizurik. Horregatik, EAJk beste irtenbide bat dauka pentsatua palaziorako eta da Liburutegi moderno bat eraikitzea, liburuak aurkezteko aretoa, Kultur Etxea, elkarte desber-dinentzako lokalak, wi-fi gunea, kanpoan kontzertuak emateko lekua, ipuinak kontatzeko tokia, etab. Hau da, kulturaren alde egingo duen egitasmo bat, gure herriko bizilagun guztiek eskura izango dutena.

Horrez gain, finantza ikuspegitik, permuta egingo balitz Bergararentzat etxekal-te izango litzateke, Seminario-ko egoitza bere gain hartu beharko bailuke herriak. Guk egin ditugun kontuen arabera, bergararrei 3 miloi eurotik gorako karga ekarriko lieke permutaren operazio horrek eta, gainera, Bergarako jauregirik onena galtzea. Ekonomikoki eutsi ezinekoa da, udal aurrekontuak zama handiaren pean utziko lituzke eta ondare eta baliabide aldetik gehiegizko galera esan nahiko luke.

Baina bada besterik ere. Jakin badakigu Aranzadi Ikastolak esan duela ez daukatela permutaren beha-rrik Seminarioko etxean

sartzeko. Erantsi behar dugu hiru urteren buruan ez dela zehaztu zertarako erabiliko den Seminarioko egoitza. EAE-ANVk adierazi duen azkenekoa izan da aurki argituko duela auzi hori. Bien bitartean, galdera batzuk sortzen zaizkigu: funtsezko eta ezinbesteko ze egitasmoga-tik erabakitzen da permutara jotzea? Zertan oinarritzen dira permutaren alde dauden alderdiak?

Hori guztia nahikoa ez eta, hara zer dioen EAE-ANVk landutako plan estrategikoak: "Ekarpen urria egiten dio UNEDek Bergarako herriari". Zer egin nahi du orduan EAE-ANVk, gure herriari ekarpen eskasa egiten dion Unibertsit-ateari Bergaran daukagun jauregirik bikainena eman? Gainera, gure bizkarretik ordainduko al da operazio hau kostako dena, burutuz gero? Horrela defenditzen al ditu EAE-ANVk herriaren intere-sak?

Gauza gehiago ere ekar genitzake hona; Zaharren Egoitza handitzeko egitasmoa, esate baterako. Baina honetan utziko dugu, herriak juzka dezan. Hiru urte igaro eta gero, bete gabeko gauza askotxorekin a ze betekada eduki behar duen bergarar batek baino gehiagok. EAJtik diogu ez dugula udal politika egiteko gure era alde batera utziko: herriarekiko konpro-misoak, Bergarako herriaren interes orokorra bilatzeak eta gure bizilagunen alde egiteak mugitzen gaituzte. Eta horre-tan jarraituko dugu.

Joxepak ezin izan du jaso semearen azken besarkada

Enrike Letona Biteri
Arrasate

Joxepa Arregi hil zaigu astelehen honetan. 91 urte zituen eta horietako asko eta asko espetxez espetxe ibili da, *Garratz* bere semearen atzetik. Izan ere, *Garratz* espetxez mugitzeak Josepa martxan jartzea zekarren. Beste ama eta senide askok bezala, zenbat kilometro ez zituen egingo... Eta nolako duintasunez, gainera!

Gainera, Etxerateko lehendakaria izanda, hori baina askoz gehiago ordezkatzen duzu, Joxepa, inoiz itzaliko ez den kriseilua piztuta ikusten dugu zure eskuetan, nekaezina, etengabe aurrera eginez. Espetxeak

ezagutu ditugunok ederki asko dakigu nolako babesa izan zareten guretzat zu eta zu bezalako milaka ama galan-tak.

Baina aurrez aurre ditugu-nok ederki asko dakite hori. Behin eta berriz hemen batzuek bakarrik sufritzen dutela adierazten duten horiek berriz ere min egitera joan dira eta min egin dute, gainera, min itzela. Gure laguna den Jesus Mari Zabarte *Garratz*-ek ziega ilun batean jakingo du bere ama, berari bizia emateaz gain berarengatik hainbeste egin duen ama, ez duela gehiago ikusiko. Bere malkoak aurpegitik zehar lerratuko dira porlan zikineraino eta tripako korapiloa denbora luzean izango du askaezin.

Heriotzatik inor ez da libratzen eta Joxepak zuen adinarekin gertu egon ziteke-ela susmatzen genuen. Joxepa gaixorik jarri zenetik, eta bere txosten medikoek garbi adierazten zuten egunetako kontua zela, *Garratz*-ek ama ikusteko, amari azken besar-kada emateko, baimena eskatu zien Espetxeko zuzen-daritzari eta Zaintza epailea-ri.

Ez da zerbait berezia, ez da pribilegioa, legeak edozein presori permititzen dion eskubidea da. *Garratz*-ek legea, beraiek egindako legea, gainera, aplikatzea eskatu du. Behin eta berriz legea bete egin behar dela dioten horiek zer egin dute oraingoan? Bada, beste askotan bezala. *Garratz* Granadatik traslada-tu dute, baina ez ama ikuste-ko, Jaeneko espetxera baizik. Horrela betetzen dituzte legeak hauek! Izan ere, legea bete balute, legeak bete behar diren bezala, *Garratz*-ek ez zuen eskaerarik egin beharko, aske egon beharko lukeelako, bere zigorra aspaldi bete duelako oso-osorik, beste lagun askok bezala.

Orain arte herritarrei zuzendu natzaie. Orain, azken lerro hauek, *Garratz*, hiretzat dituk, lagun. Badakik ama ondo babestuta eta mimatuta egon dela azken arnasaraino. Arlo horretatik bazekiat lasai hagoela. Ezin izango duk besarkatu, baina asko izango gaituk, hire ama agurtzera joango garenean, hire begie-kin ikusiko dugunok. Asko izango gaituk hire mina sentituko dugunok eta horrek hire mina eta amorrua arinduko duela espero diat. Ziur nagok gure maitasuna helduko dela hiregana. Une gogor hauetan hirekin gaituk, *Garratz*, baina, nola ez, aurretik ere hirekin gintuan. Zuekin gaude!

Agur eta ohore, Joxepa!

ELAri gutuna

Aritz Arnaiz Laskurain
(Euskal preso politiko ohia)
Oñati

Oñatin ostiralero elkartzen gara euskal preso politikoen eskubideen aldarripean. Azkenaldian, aldarrikapen hau herrira zabalduz indartu nahi izan dugu hileko azken ostiraletan herriko talde eta eragile ezberdinek deialdia-ren protagonismoa eurenga-natuz, presoen defentsan herri oso bat dagoela irudika-tu nahiz.

Maiatzeko azken ostirale-rako deiaren bultzatzaileak sindikatuak izango dira. Honela, ESK, LAB, EHNE eta STEE-EILAS sindikatuek deituko dute maiatzaren 28ko kontzentrazioa. ELAk, berriz, ezezkoa esan du.

Zer dela eta ematen du ezezkoa bere egoitzan euskal presoak Euskal Herriratzear-ren aldeko izara zintzilikatua duen batek, ostiraleko kon-tzentrazioaren xedea horixe bera denean?

Zer dela eta presoen eskubideak errespetatuak izan daitezela baino eskatzen ari ez garenean, estatuak bere legalitatea bete dezala exijitu baino egiten ez dugunean?

Zer dela eta euskal presoen aurka estatu espainiar eta frantsesek inoiz baino gogo-rrago dihardutenean, hainbat preso jipoituz, hemendik milaka kilometrotara urrun-duz eta bakartuz, espetxe zigorrak bidegabeki luzatuz edota bisitetara sartzeko senideak miatu nahiz?

Une honetan bertan Joseba Arregi oñatiko preso politikoa Jaengo beste euskal presoekin batera gose greba mugagabea dago senideen bisita eskubidea bermatzea-ren alde.

Beste kartzeletan ere presoak oinarritzko eskubide-ak errespetatzeko borrokan dabiltza. Eta espetxean zaudenean, herriak babesten zaituela, egiten dizkizuten bidegabekerien aurrean jendeak ez duela beste aldera begiratzen jakitea garrantzi-tsua da.

ELAk berak jakingo du zergatik begiratu nahi duen beste aldera. Nik kartzeletara begira dezala eta gertatzen ari denari amaiera emateko bere apurra eman dezala eskatuko nioke Euskal Herrian duen erreferentzialtasunak ematen dion erantzukizunari muzin egin gabe.

Besteok aurrera jarraituko dugu, euskal preso politikoak Euskal Herrian euren eskubi-deen jabe izan arte eta orain batzen ez direnei ateak beti irekita.

'Egin' egunkaria argitaratzen zuen Orain enpresako presidentea izateagatik kartzelan

dago Jose Luis Elgoro Bergarako alkate izandakoa. 18/98 sumarioan epaitu zuten: 22

urteko kartzela zigorra ezarri zioten hasiera baten, eta ondoren, Epaitegi Gorenak 8 urtera

jaitsi zuen zigor hori. 75 urte ditu, gaixo dago, eta kartzelan dago iazko apirila ezkerero.

Jose Luis Loidi > 'Jose Luis Elgoro libre' plataformako kidea

"Elkoro bezalako pertsona batek adin horrekin ezin du kartzelan egon"

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Duela 20 urte inguru, Elkoro alkate zela, zinegotzi izan zen Jose Luis Loidi Bergarako Udalean. Hura libre lagatzea eskatzeko plataformako kide da.

Zein da plataformaren helburua?

Jose Luis Elgoro libre uztea. Baina aske geratu bitartean, Elkorori gure babesa eskaini eta elkartasun adierazpenak helarazi nahi dizkiogu. Sentitu eta jakin dezala, herritar gehienon iritzia dela katean egon beharko lukeela.

Horregatik antolatu duzue kartzelara bisita?

Uste dugu modurik egokiena dela herriaren nahia zein den erakusteko. Jai giroan egin nahi dugu. Joan zen egunean elkartu ginen 60 lagunok gauza bagara gure nahiak herritarrei helarazteko, uste dugu jende asko batuko garela eta hedabideetan izango dugun oihartzuna ere horren arabera izango dela.

Noiz joango zarete Dueñaseko (Palentzia) espetxera?

Ekainaren 6an, domekan, orduan dauka eta familiak bisita. Dueñas hemendik bi ordu eta erdi edo hiru ordura dago eta 10ak aldera aterako gara. Ordu batean iritsiko gara; bazkaldu, eta 15:00etan dauka hitzartuta bisita.

ta familiak. 40 minutuko bisita. Kartzela aurrean batuko gara, ikurrinekin, musikarekin, trikitiarekin..., barruan dagoenari elkartasun mezua bidaltzeko.

Ideologia ezberdineko jendea batu zarete Plataforman?

Bai eta oso garrantzitsua izan da hori guretako. Horrek ematen dio balio erantsia ekimen honi. Eguen guztietan batuko gara.

Orain dela hilabete batzuk egin zenuten beste ekitaldi bat eta han elkartu zineten Bergarako zinegotzi eta alkate izandakoak.

1979tik gaur arte Bergarako zinegotzi edo alkate izan garenok elkartu ginen eta testu bat adostu eta plazaratu genuen. Hautesien %97ak egin genuen bat tes-

ELKORO

"Hiru astez egon da bere ziegatik atera ezinik eta bisitetara gurpildun aulkian aurkeztuz"

FAMILIA

"Familiak asko sufritzen du, egiten duena baino gehiago egiteko aukerarik ez duelako"

tuarekin. Era berean, testu horrekin gutun bat bidali genion Dueñaseko espetxeko zuzendariari. Elkororen egoera dela-eta, aske lagatzea eskatzen genuen. Ez genuen erantzunik jaso. Orain beste eskutitz bat bidali diogu Espetxeetako zaintza epaileari eskaera bera eginez.

Zer moduz dago Jose Luis?

Animuz ondo, baina osasun aldetik izorratu samar. Orain dela urtebete eta erdi ebakuntza egin zioten eta minbizi-tumorea kendu zioten. Ondo atera zen, baina badakigu zer den minbizia. Bestalde, lunbalgiak gogor jotzen dio eta, esaterako, duela gutxi hiru astez egon da bere ziegatik atera ezinik eta bisitetara gurpildun aulkian aurkeztuz. Horretaz gain, migraina izaten du sarri eta hiru egunetik behin buruko min handiekin egoten da. Kartzelako bizi baldintza gogorrek sortzen dizkion presio eta estresak ez dio mesederik egiten.

Ez da ohikoa 75 urteko pertsona, osasun egoera horretan, kartzelan egotea.

Ez dauka ez bururik eta ez hankarik. Ulergaitza eta onartezina da. Gizalegeak dio horrelako pertsona batek adin horrekin ezin duela kartzelan egon. Gainera, kontuan izan behar da bizi dugun egoera, testuingurua. Esa-



Jose Luis Loidi.

ENEKO AZKARATE

terako, *Egunkaria* kasuan auzipetuak, Elkorori leporatzen dioten kargu berdinak izan arren, aske geratu dira. Eta pozten gara. Baina, Elkororendako tratu bera eskatzen dugu.

Zergatik dago kartzelan?

Egin egunkaria argitaratzen zuen Orain enpresako presidentea izateagatik. Horregatik epaitu zuten 18/98 prozesuan eta talde armatuko kide izatea leporatu zioten.

Elkororekin lan egiteko aukera izan zenuen 1987-1991 agintaldian, hura alkate zela zeu zinegotzi zinen-eta...

Oso oroitzen onak ditut. Gaur egun dakidan gauza asko ikasi nuen orduan. Batez ere, balioekin eta etikarekin zerikusia dutenak.

Familia zer moduz dago?

Askok sufritzen dute, batez ere egiten daudena baino askoz gehiago egiteko aukerarik ez dutela ikusten dutelako. Horregatik da garrantzitsua haien ondoan egotea. Herritarren presioa modu egokian bideratzen asmatzen badugu, lortuko dugu. *Egunkaria* edo Alakranaren kasuak hor daude: herritarren presioagatik aldatu zen agintarien iritzia.

Autobusak antolatu dituzte Elkoro bisitatzera joateko

Joan den egunean egin zuten *Jose Luis Elgoro libre* plataformaren lehen batzarra. 60 bat herritar batu ziren, Bergarako alkate izandakoari elkartasuna adierazi eta kartzelatik ateratzeko biderik motzena topatzeko. Hasteko, erabaki zuten martxa bat egitea Dueñasera (Palentzia), ekainaren 6an, *Autobus martxan goaz ikurrina ekarri zigunari elkartasuna eramatera* lelopean. "Autobusetan joan eta bere ziegako leihoraino iristen saiatuko gara, ikus gaitzan", esan digu haren seme Paulok.




Jose Luis Elgoro libre plataformaren aurkezpeneko irudia, joan den egunean.

PAULO ELKORO

EUSKAL HERRIA aurkezten du
aldizkariak

Mundumira



Antzuola - DEBAGOIENA

munduko kulturen festa

Malabarcirco, Tiritirantes, Oihulari Klown, azokak, umeen gunea,
herriko trikitixa eta txistulariak, mendi igoerak, diaporamak...



**OJOS
DE BRUJO** (Catalunya)
**GANGBÉ BRASS
BAND** (Benin)

GOSE (Eh)

THOMSO (Senegal)

KLAK!SON (Antzuola)

GIRASONS (Auditori de Barcelona)

TACUMAH REGGAE BAND (Eh)

BAIÃO BRASIL (Brasil)

RUMBA VELLA (Catalunya)

i 902 181 471
www.mundumirafesta.com

Euskadiko **BOULDER** Txapelketa

Antolatzaileak:

EUSKAL HERRIA

902 181 471
www.euskalherria-aldizkaria.com



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA
TURISMO

Babesle nagusiak:



gozokueuskaltel.com



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Babesleak:



Kolaboratzaileak:





Arantzazuko Santutegia

Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI
943 78 13 13

Eskaintza www.hotelsantuariodearantzazu.com

- 46 logela
- 200 pertsonentzako jangela
- Eguneko menua eta karta
- Familientzako menuak asteburuetan
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak

Egunero zabalik



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Bereztasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

Eskaintza

www.errekajatetxea.eu

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56

www.etxeaundi.com

Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

Egunero zabalik



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15

www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

Martitzenetan itxita



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55

Eskaintza www.restaurantelasa.com

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak asteartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomia 2009 saria.




Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

Egunero zabalik



Zumelaga jatetxea



San Antonio 3 / BERGARA
Tel.: 943 76 20 21

www.zumelaga.com

Eskaintza

- Enpresako bazkari eta afariak
- Despedidak, ezkontza eta bataioak
- Karta eta menu berezia
- Elbarriendako sarrera eta irteera egokituak

Igande eguerdietan zabalik eta astelehenetan itxita

Herriak

Arrasate > 12-15 **Bergara** > 16-19 **Aretxabaleta** > 22-23 **Eskoriatza** > 24
Antzuola > 25 **Oñati** > 26-27 **Aramaio** > 28 **Elgeta** > 29 **Gatzaga** > 29



> BERGARA

Jaien balorazio ona egin du Udalak, eta lagundu dutenei eskerrak eman > **18**



> ESKORIATZA

Atxorrotzeko ondarea ikusteko irteera antolatu dute biharko > **24**



> ANTZUOLA

Autoa garajeen uzteko eskatzen die Udalak herritarrei > **25**



> ELGETA

Jende asko Intxortako ibilbidearen inaugurazioan > **29**

ARETXABALETA > ZERBITZUAK

Anbulatorioak betiko lekuan jarraitu beharko du, 2011ra arte gutxienez

ESKAERA

Udalak proposatu dio Osakidetzari Urats-Gain egoki dezala osasun etxe gisa

KRISIA

Mendebaldeko zuzendaritzak dioenez, Osakidetzak "ez du inbertitzeko dirurik"

LEIRE KORTABARRIA > ARETXABALETA

Aretxabaletako anbulatorioko eta Udaleko arduradunek laguntza eskatu diote Osakidetzari, herriko osasun zerbitzuek daukaten leku eta azpiegitura arazok konpontzeko, baina Osakidetzak orain arte erantzunik eman ez duen, aurreikusten da zein izango den, azkenean: gerrikoa estutzea, eta gutxienez 2011. urtera arte anbulatorioak dagoenetan jarraitzea.

Osasun etxeak hainbat gabezia ditu: orain 28 urte egin zutenetik, ez da lekuz aldatu, eta, garai baten egokia bazen ere, orain, herriko populazioa handitu egin denez eta premia gehiago daudenez, eskas geratu da. Bertako ekipamendua ere "zaharkituta eta txikiegi" gelditu da, Inaxio Garro alkatearen esanetan.

Arazoak konpontzen joan dira arduradunak, ahal izan duten moduan, baina konponbideak ez dira beti Osakidetzaren gustukoak izan: "Emaginak beste bulego baten dauka bere kontsultategia; bestalde, erditze aurreko eta ondorengoko gimnasia beste egoitza batera eraman behar izan ziren. Osakidetzak ez ei du begi onez ikusten zerbitzu batzuk anbulatoriotik kanpo ematea, eta esan zigun zentroko arduradunak bere gain hartu beharko zituela gerta zitezkeen gorabeherak. Baina Osakidetzak berak ez digu beste konponbiderik proposatu", esaten du Inaxio Garrok.



Errekararren kaleko etxabe baten dago Aretxabaletako anbulatorioa, ireki zutenetik, orain 30 bat urte.

LEIRE KORTABARRIA

"EA DATORREN URTEAN..."

Aretxabaletako osasun arduradunen eta Udalaren eskutik etorri da proposamen bat: joan den ekainean hutsik geratu den nagusien egoitza zena -hain justu anbulatorioaren ondoan dagoena, biak Errekararren kalean- Osakidetzaren esku uztea, eta horrek bere gain hartzea eraikin hura osasun etxe gisa egokitze beharko liratekeen obrak. Proposamen hori Aretxabaletako osasun etxeko arduradunek egin

zioten Udalari, eta Udalak Osakidetzako zuzendaritzari planteatu zion orain dela aste batzuk. "Oraindik ez dugu erantzunik jaso", esaten du alkateak.

Erantzun falta horrek zerikusi handia izan dezake krisi ekonomikoarekin. Osakidetzako Gipuzkoa Mendebaldeko Ekonomia zuzendari Aldo Gorosabelek honela diosku: "Egoera oso-oso txarra da, eta ez dago inbertsio-erako dirurik. Pentsa: guk Gas-teizera bidali ditugun bederatzi

eskaera daude erantzuteko zain. Gainera, urtero eskaera bakarra onartzen digute. Osakidetzak ez dauka inbertsio-erako dirurik, momentu honetan".

Gorosabelek bertatik bertara ezagutzen du Aretxabaletako kasua, eta Urats-Gain ere ezagutu du: "Proposatzen den eraikina kanpoaldetik ondo dago, eta barrutik obra egin behar da. Guk bidali diogu Osakidetzako zuzendaritzari txostena, esaten ze behar dagoen, ze txoko egokitu beharko litzatekeen, zenbat jenderendako... Eraikin alternatiboa, tokia badago, hori ziur". Edozein modutan, Mendebalde zona-ko Ekonomia zuzendaria ezkorra da: "Zain gaude. Ea datorren urtean zelako egoera dagoen".

Alkateak esan duenez, eurek egindako irtenbide proposamena bakarra da, oraingoz, eta Osakidetzak ez du besterik mahai gainean jarri. Aretxabaletako Udalak beste batzar bat eskatu du Osakidetzako zuzendaritzarekin.

LARRIALDIAK, BOTIKIN GELAN

Aspalditik datoz osasun etxearen gabeziak: ia hiru hamarkada pasatu eta gero, espazioa txikiegi geratu da Aretxabaletako biztanleei zerbitzua emateko; emagina eta ginekologia kontsultategia eraikin nagusitik bereizita dago; erditze aurreko eta erditu eta gero gimnasia beste eraikin baten ematen dira; eta espazio berean lehen baino mediku gehiago egoteak ere arazoak ekarri ditu: hala, goizean lau familia-mediku eta pediatra bat daude, eta 13:00etan lanera sartzen den medikuak horietako batek lana bukatu dezan itxoin behar du haren kontsultategia erabiltzeko. Gauza bera gertatzen da erizainekin.

Bestalde, botikin gela erabili behar izaten dute larrialdietarako; eta gaixoen mediku-historialak informatizatuta dauden arren, paperezkoak gordetzea derrigorrezkoa da, eta horiendako ere leku txikia dago.

DATUA

9

ESKAERA

Osakidetzako Gipuzkoa Mendebaldeak bederatzi finantzaketa eskari bideratu dizkio zuzendaritzari, eta erantzun baten zain daude; urtero bakarra onartzen du zuzendaritzak.

ESANAK

"Anbulatorioa zaharkituta eta txikiegi geratu da, eta zerbitzu batzuk eraikin nagusitik kanpo ematen dira"

Inaxio Garro > Alkatea

ENPRESA > UDALATX BARRUKO MEATEGIA

Udalatx barrutik ezin izango dute segitu harria ateratzen

Mendi barrutik kareharria ateratzeko bideragarritasuna aztertzeko meategia egin dute bost urtean

UBANE MADERA > ARRASATE

Udalatx mendi barruan hiru galeria daude: bat handia eta bi bigarren mailakoak. Bost urteotan zulatu ditu Cantera de Campanzar enpresak. Helburua izan da ikertzea ea bideragarria den mendi barruan meategia egitea, kareharria ateratzeko.

2009ko abenduan, baina, Arrasateko Udalak jakin zuen Cantera de Campanzar enpresa proiektu berria tramitatzen hasita zegoela Jaurilaritzaren bitartez; ikerketa beharrean, Udalatxen lur azpiko meategi ustiatzea egiten hastea zen asmoa.



Udalatx barruan egin duten galerietako bat, obrak hasi zituztenean.

GOIENKARIA

Hala, Udalak ulertu du ikerketari berari dagozkion lanak bukatutzat eman dituela Campanzar enpresak; eta mendi barruko meategitik kareharria

ateratzen segitu gura badu, beste jarduera lizentzia bat eskatu beharko duela.

Halaber, enpresari komunikatuko dio orain arteko ikerke-

ta baimenak bertan behera geratu direla; beraz, baimen horiek ez dutela babesten Udalatx barruko galerietatik harria ateratzen segitzea.

NAGUSIAK

820 nagusik bat egingo du Musakolan bihar

Marina Sanchez (102 urte, abuztuan) eta Ladislao Ginaldo (99 urte) omenduko dituzte

U.M./A. A. > ARRASATE

Etxafuegoak, meza nagusia (San Juan parrokian, 12:00etan) bazkaria (Musakolan, 14:00etan) eta bazkalosteko dantzaldia. Horiek dira Arrasateko 820 erretiratutako biharko (zapatua) Erretiratuen Egunean izango dituzten ekitaldiak.

Jakina, bazkalosteko dantzaldi eta opari zozketarekin ere akordatu dira Erretiratuen Eguna antolatzen duten SUDC elkarteak, nagusiek oso gustuko dituzten ekimenak dira-eta horiek. "Oraingo gazteriak baino dantza gehiago egiten dute", kontatu du Juan Luis Arkauzek, SUDCeko presidentea.

Opariak, berriaz, herriko saltokiek emandakoak dira. "Krisiaren eraginez-edo, azken urteotan gutxiago eskuratu ditugu. Edozelan ere, SUDC elkarteak berak ere opari bana egingo die nagusiei. Zozketari dagokionez, bazkari txartelekin egingo dugu, eta zerrenda Abaroan ipiniko dugu gero", jakinarazi du Arkauzek.

Eta, jakina, opari bereziak eskuratu dituzte emakumezko eta gizonezko nagusienek: Marina Sanchezek eta Ladislao Ginaldok, hurrenez hurren.

SUDC elkarteak antolatuta 50 bat lagunek jardungo du lanean biharko egunean Arrasateko erretiratuek egun polita pasa dezaten; izan ere, "eguna itxaroten egoten dira, euren zoragarria da-eta", azaldu du SUDC elkartearen presidentea.

EUSKALGINTZA > URTEKO BATZARRA

Krisiak markatuko du euskalgintza aurten

Batzar nagusian kontu ekonomikoak aztertuko dituzte bihar, zapatua, Kulturaten, 10:30ean

U.M. > ARRASATE

Dirulaguntza jaitzierak eta dirulaguntza gabeziak markatuko dute aurten Arrasateko euskalgintzaren jarduera. Bihar, zapatua, urteko batzar orokorra egingo dute AED, Txatxilipurdi eta Ekin Emakumeak elkarteek, eta horixe izango da ardatz nagusia: krisiaren eragina. Hiru elkarteek aurkeztuko dituzten kontuetan age-

rian utziko dute zailtasunak izango dituztela jarduera eta lantaldeei eusteko. "Diputazioak ez du aurtengo dirulaguntza erantzunik eman, eta Jaurilaritzak ez du deialdirik ere egin", diote. Horrez gain, udal dirulaguntzan ere jaitziera handia izango dute.

Xehetasunak bihar helaraziko dizkiete bazkideei, 10:30ean, Kulturateko areto nagusian.

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
www.mondragon.edu/gep
e-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu
Tel: 943 71 21 91

Oñati gestio heziketa
www.mondragon.edu/enpresagintza
e-posta: gestioheziketa@gmail.com
Tel: 943 71 80 09

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
2010-2011

Lanerako gertu!

Izen-ematea
Maiatzaren 31tik Ekainak 11arte
Matrikulazioa
Uztailaren 7tik 13arte
ESKAITZA AKADEMIKOA

MGEP	Oñati Gestio Heziketa
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak - Sareko Informatika Sistemen Administrazioa - Fabrikazio Mekanikoko Diseinua - Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa - Industri Ekipoaren Mantenimendua	- Administrazioa eta Finantzak - Idazkaritza - Merkataritza Kudeaketa eta Marketing-a

KIMETZ
Taberna

Plater konbinatuak
Ogitarteko hotz eta beroak
Hanburgesak
Pintxoak
Razioak

943 10 97 30
Maalako Errebala 15. Arrasate.

> HEZKUNTZA

Arrasate herri eskolak ikasturte amaierako jaia egingo du egunean

Ekainaren 3rako egin du hitzordua Arrasate herri eskolak Erguingo ikastetxean, ikasturte amaierako jaialdirako. 15:15ean hasi eta 19:30ak pasata bukatuko da jaialdia.

Ikasleak izango dira aurreneko protagonistak, saio bereziak prestatzen ibili eta horiek taularatuko dituztelako. Horren ostean, merienda egin eta jolaserako tartea izango dute: puzgarriak, disko festa eta bestelakoak, 16:30ean hasita.

Halakoetan ohi duten moduan, ikasle eta irakasleekin batera ikasleen senitartekoak ere gonbidatuta daude jaian parte hartzeko.

Alfonso Gurpegi > Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria

"Etxez etxeko laguntzan maitasuna eta segurtasuna helarazi behar dira"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Alfonso Gurpegi (Sestao, 1962) Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria Arrasaten izan zen eguaztenean, Arizmendiko Lanbide Heziketa sailak Ferixalekuan antolatu zuen *Erizaintzako laguntzaileak gaur* jardunaldian. Etxez etxeko laguntzaren etorkizunaren gainean aritu zen Gurpegi; harekin egon ginen hitzaldiaren ostean.

Nolakoa da etxez etxeko laguntzaren etorkizuna?

Biztanleriaren zahartzeak eta gizarte politiken aurrerapausoek etxez etxeko laguntzaren sektoreko jarduna asko haziko dela pentsarazten digute. Beraz, erizain laguntzaileen beharra egongo da, eta oso garrantzitsua da horiek ondo prestatuta izatea.

Zeintzuk dira, bada, laguntzaileon ezaugarriak?

Ezinbestekoa da zerbitzua jasoko duten pertsonen oinarriko ezaugarriak ezagutzea.

Bestalde, erizain laguntzaileari oso mesedegarriak izango zaizkio, besteak beste, mugikortasunaren, elikaduraren eta lehen sorospenen gaineko ezagutzak izatea. Praktikan, baina, garrantzitsuena da enpatiarako gaitasuna izatea, eta maitasuna eta segurtasuna helarazten jakitea.

Zeintzuk dira eskari nagusiak?

Osasun zerbitzuendako, gaitxoak izan daitezke, baina gizarte zerbitzuetan erabiltzaile moduan tratatzen ditugu. Hala, garbitasunerako eta mugikortasunerako eskariak dira nagusi.



Alfonso Gurpegi, Ferixalekuan, hitzaldia egin ostean.

J.B.

Udalak aldi baterako lan poltsa sortuko du

Udalak erizaintzako diplomadunendako lan poltsa sortuko du. Hau da, horiendako plazetan aldi baterako zerbitzuak emateko beharrei erantzuteko lana eskainiko du. Lan poltsak hiru urteko balioa izango du, sortzen den egunetik hasita. Hauek izango dira eskatzaileen egitekoak, besteak beste: ospitaleko sartzak eta kanpoko kontsultak jarraitzea, egunero medikamentuak prestatu eta banatzea, medikuekin lankidetzan aritzea, botikin zerbitzua eman eta sendaketak jarraitzea, eta odol ateratzeak egitea.

Deialdia presazkoa da, eta ez da jarraituko eskabideak aurkezteko eta onartzeko izapidea, eta oposizioetako hautaketa sistema osatzen dutenek zuzenean aurkeztu ahalko dira. Langai zerbitzuan eta eskualdeko INEMeko bulegoan ere emango dute lan poltsaren berri.

Krisiak gizarte zerbitzuak ere astindu ditu; gogor, gainera.

Moteltzea ekarri du, baina ezinbestekoak direla agerian geratu dira; zerbitzua hobetzea erakunde zein profesionalon ardura da.

POLITIKA > PRESOKAK

Herriko 18 musika taldek bat egin dute azken egubakoitzeko elkarretaratzearekin

'Eskubide guztien jabe euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko' leloarekin, kale agerraldia egingo dute gaur Herriko Plazan, 19:30ean

J.B. > ARRASATE

Arrasateko 18 musika taldek deituta, presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea egingo dute gaur Herriko Plazan, 19:30ean hasita. Hileko azken egubakoitzetan egiten den kontzentrazioarekin -Azken Ostirala- bat egin dute eta herritar oro deitu dute "eskubide guztien jabe euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko" gaur plazan egingo den agerraldian parte har dezaten.

Gaurko agerraldian musika taldeek egingo dituzten aldarrikapenak hauek dira: larri gaixorik dauden presoak eta kondena beteta dutenak etxeratzea.

ELKARTASUN EGUNA

Presoen aldeko ekitaldiek hurrengo aste bukaeran ere segiko dute:

Elkartasun Eguna egingo da zapatuan. Orduan ere musikak eta aldarrikapenak bat egingo dute.

Deialdia babestu duten musika taldeak

> Governors
> Ekon
> Gose
> Des-kontrol
> Anger
> Fight to life
> Interprete Desconocido
> The Convicts
> Trullo y sus zurullos

> Dirty Brothers
> Los Galerna
> Never Surrender
> Ain-1
> Aggressive Combat
> Material Rechazado
> Kañeria 13
> The Motherfuckers
> Arkada Social

ELKARTEAK

SUDC eta ARTE, lokalarekin

J.B. > ARRASATE

Udalak SUDC elkarteari eta ARTE tailaginen taldeari lokala utziko die, hala erabaki zen tokiko batzarrean. Bi elkarte en eskaerak aintzat hartu ostean, Udalak Nafarroa etorbidean -33. zenbakian- dituen lokalak utziko dizkie.

LEKU PROPIOAREN BEHARRA

SUDC elkarteak INEM parean duen lokala bota egingo dute eta ARTEk urtebete inguru darama egoitza barik, Erguin 19ko lokala Aldundia-ri utzi zion-eta Udalak eguneko osasun zentro bat egokitze-ko. Bi elkarteek lokal propioaren beharra dute, beraz.

> AURKEZPENA

Gotzonek 'Diario de un conquistador' aurkeztuko du gaur

Gotzon Mantuliz iazko *El conquistador del fin mundo* EITB taldearen saioko irabazleak *Diario de un conquistador* liburua aurkeztuko du gaur Erdiko kaleko Elkar dendan, 19:00etan. Lehiaketako beste parte-hartzaile batzuk ere izango dira aurkezpenean.

> ARTEA

Zumetaren 'Oi! Bihotz!' erakusketa, domekara arte

Jose Luis Zumeta artista usurbildarraren *Oi! Bihotz!* erakusketa bisitatzeko azken eguna maiatzaren 30a izango da, Kultureteko klaustroan. *Kolo-reen maisuaren* 38 serigrafia daude ikusgai, besteak beste.



TONÍ

ILE-APAINDEGI MISTOA

Ekaina, koloreetako hilabetea...
Loreal (Inoa) Wella eta Elumen-ekin

Tintea eta lehortzea: 36 €
Tintea eta moztea: 46 €

Tel: 943 79 14 70

Iturriotz kalea 23 **ARRASATE**



SASKIBALOIA > OINTXE!

MUK jarraituko du aurpegi berriak izango dituen Ointxe! babesten

MUK beste hiru urtez babestuko du Ointxe!; Gorka Zurututza da kirol zuzendari berria eta Josu Larreategi lehen entrenatzailea

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Aste barruan aurkeztu du Ointxe! saskibaloia taldeak datozen denboraldiei begira dituen nobedadeak. Batetik, hiru urte elkarrekin egon ostean, beste hiru urtez babestuko du Mondragon Unibertsitateak Ointxe!

Egungo krisi egoeran zailtasunetako bat gaindituta, eta lehenengo taldeak maila galdu duelako itsutu barik, Ointxe!-ko zuzendari taldea erronka berriei aurre egiteko buru-belarri ibili da lanean. Eta, proiektu berri horrek bi izen propio ditu: Gor-

ka Zurututza eta Josu Larreategi. Hala, Gorka Zurututza oñatira izango da aurrerantzean Ointxe!-ko kirol arloko zuzendaria, eta talde bat gidatzeko ardura izan barik, kluba zuzenduko du arlo teknikoan. Lan horretarako taldeko zuzendariak etxeko gizon baten alde egin dute, esperientzia-duna eta entrenatzaile moduan goi mailako titulua duena.

ENTRENATZAILE BERRIA

Azken urteotan talde nagusiko entrenatzaile lanetan ibili ostean, Javi Zurbanok kluba utzi eta

atseden hartzea erabaki du. Eta Eskoriatzan bizi den Josu Larreategi arabarrak hartuko du lehenengo taldearen ardura.

Lehenago ere Arrasateko taldea Larreategiren atzetik ibili izan da, baina oraingoan proposamena onartzea erabaki du Basconiaren lehen eta bigarren taldeetan urtetan lanean ibili den gizonak. Hala, Larreategik gertutik ezagutzen ditu Iriarte, Comas, Herb Brown, Lamas eta Dusko Ivanovic, eta haiekin guztiekin ikasitakoak praktikan jarriko ditu Arrasaten.

UDAKO KANPUSA, EKAI NEAN

Bestalde, iaz moduan, aurten ere udako campusa egingo dute, ekainaren 28an hasita, eta Zurututzak kudeatuko du campus hori.



Zurututza, Basurko eta Larreategi martitzeneko prentsaurrekoan.

IMANOL BELOKI



GOIENKARIA

Iban Rodrigo, Euskadiko onena

Arrasateko AKE tenis elkarteko irakasle Iban Rodrigok irabazi du Euskadiko tenis txapelketa; joan den zapatuan jokatu zuen finala, Arkaitz Manzarbeitia orozkoarraren kontra (ATPko 38. postuan). Rodrigo gasteiztarra da, eta urtebete darama Arrasateko tenis klubean gazteekin lanean. Txapelketei kasu handirik egin barik, parte hartzen duenean zelako maila duen erakusten du.

> ZALDIBAR

Zapatu goizean jokatu dituzte, 11:00etan hasita, Zaldibarko areto futbol txapelketako finalerdiak

Zaldibarko areto futbol txapelketa iritsi da azken txanpara. Bihar, 11:00etan hasita jokatu dute txapelketako lehenengo finalerdia Abokajarrok eta Lasagabasterrek. 12:00etan, berriz, Dribling eta Mc Awen Dauen taldeak izango dira zein baino zein gehiago. Oenak finalerako sailkatuko dira.

> ATLETISMOA

Maialen Axpek sasoian jarraitzen duela erakutsi du, eta Euskadiko errekorra berriro ere ondu

Maialen Axpe pertika saltoan aurrerapausoak egiten dabil aurten, eta zelakoak, gainera: aste gutxiren buruan birritan ondu du Euskadiko errekorra. Arrasatekoak 3,70eko marka egin zuen joan den astean Kantabrian, eta marka horrekin maila absolutuan zazpigarren posturaino egin du salto.

> JUDO

Oreretan egindako lanari esker Arrasateko judo taldearendako emankorra izan da asteburua

Euskal Herriko taldeekin batera kanpokoak ere lehiatu ziren joan den astean Oreretan, eta gerriko beltzen bigarren Dan-erako azterketan Bittor Agirreurretak kalifikazio altuena lortu zuen. Gazteak ere lehiatu ziren, eta Arrasatekoak 14 domina batuta itzuli ziren.

> FUTBOLA

Mondrako infantil mailako mutilak Gijonera asteburuan

Lan ona egin dute Arrasate futbol taldeko ohorezko infantilek. Txapeldunen faserako sailkatu eta laugarren izan dira. Hala, denboraldi biribiltzeko aukera izango dute asteburuan, Sporting taldeak lagunartekora gonbidatu ditu-eta.

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50





Herriko Plazan jarriko den karpan ederto edan eta jateaz gain, herriko musikariez gozatzeko aukera ere izango da.

GOIENKARIA

Izena ematen duten herriko bakarlari eta folk taldeek karpan jo ahalko dute

OSPAKIZUNAK > GARAGARDO JAIA

Musikak protagonismo berezia izango du aurten

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

12 urte beteko ditu Arrasateko errugbi taldearen garagardo jaiak, eta dagoeneko arrasatearrek ez dute ekaineko lehen aste bukaera ospakizun hori barik ulertzen. Bada, aurten beste urrats bat egin gura dute, Herriko Plazako karpak are gehiago erro dadin; Agustín Aranburu taldeko presidentek jakinarazi duenez, beste ekimen bat abiaraziko dute: herriko musi-

kariak deitu dituzte eguenean, karpak zabaltzen den egun berean, jo dezaten -19:30etik 23:00etara- edo-. Hori bai, ez dute "musika gogorrik" nahi, eta bakarlari eta bestelako proposamen arinei eman nahi diete aukera. Saria musika materiala izango da, Lazkano musika dendaren eskutik.

2011N, KARPA ASTE OSORAKO

Kajoi taberna, Lazkano denda eta Udala izango ditu lagun errugbi taldeak. Bestalde, Aranburuk gaineratu du ekimena datorren urteari begira antolatu dutela: "Aurten ez dugu lehiaketa moduan planteatu eta sariak zozketatu egingo dira. Baina asmoa da dato-

rren urtean lehiaketa antolatzea eta, bestelako ekimenekin batera, karpa aste osoan zabalik izatea". Hortaz, ondo irteten bada, aurrera. Parte-hartzaile kopurua mugatua da. Izena emateko, bi kantu aurkeztu behar dira MP3an, Lazkanon edo musika@kajoi.e.telefonica.net helbidean.

AISIALDIA

Garai-On egitasmoa ezagutzeko txangoa

J.B. > ARRASATE

Txatxilipurdi elkarteak Garai-On egitasmoa ezagutzeko aukera emango die haur eta gurasoei. Familia giroan natura eta euskara uztartzea da ekimenaren helburua. Horretarako, irteera egingo dute Garaia; ludoteketako 3 eta 12 urte arteko haurrendako eta euren gurasoei dago zuzenduta.

IZENEMATEA, EGUENERA ARTE

09:30ean irtengo dira Gari-baitik eta 18:30ean itzuliko dira Arrasatera. Tarte horretan ibilbide txiki bat eta jolasak egingo dituzte, besteak beste. Bazkaria etxetik eramane beharko da. Izenematea: 8 euro, ekainaren 3ra arte.

> HERRI ESKOLA

Egitarau zabala izango dute Erguingo eskolaren jaiak

Arrasate herri eskolak jaiak antolatu du ekainaren 3rako. Arratsaldean izango dira ekitaldiak: 15:15ean musika eta antzerkia izango dira ikasle- en eskutik eta 16:30ean merienda egingo dute. Ondoren, haur eta gaztetxoendako jokoak, puzgarriak eta disko festa izango dira, 19:30ak arte.

ABESBATZA > OTXOTEAK

Txorbela: ohitura berreskuratzeko asmoz

J.B. > ARRASATE

Duela urtebete inguru sortu zen Txorbela zortzikotea. Urtebetean hamaika saio eskaini dituzte, ezkontzetan eta festa giroan egindakoak gehienak. Santa Agedako koruan abesten dute gehienek, eta Mikel Arregi zuzendariak dioenez, taldearen helburua da otxotearen formula berreskuratzea: "Koruak eta abesbatzak badaude, baina otxote formatua desagertzeaz dago". Egubakoitzero entseatzeko dute Arizmendi ikastolaren

Gaztelupeko egoitzan, eta, oraingoz, euren erreperitorioa 19 kantuk osatzen dute, hiru multzotan banatuta: eliza musika, euskal folklorea eta munduko kantuak. Arrasateko kantuak berreskuratzeko asmoa ere badute.

SANJUANETAN ANDALUZIARA

Ekainaren 4an Bergaran egingo dute saioa. Bestalde, hurrengo irteera sanjuanetan egingo dute. Granadara joango dira; han lau saio egingo dituzte.



Txorbela otxoteko kideak Zaragozako Sause herrian.

TXORBELA

CDRAME
IGARLEA - MEDIUMA



Edozein arazo konpontzen dut, nahiz eta zaila izan: maitasuna, lana, arazo familiarra...



672 55 14 44
945 10 94 03

LANZAROTERA

SANJUANAK

Arrasatek Lanzarotea ekainaren 20tik 27ra
Apth. Sun Royal 3* (Dena barne)
+
Arrasate - Bilbo autobusa

GUZTIRA: 548 €

Bidaiazteko erarik zentzuzkoena
Olarate kalea, 14 • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 29 88

HALCON
VIAJES
www.halconviajes.com 902 300 600

INGURUMENA > ASTE BERDEA

Herriko ugaztunen inbentarioarekin hasiko da Aste Berdea martitzenean

Ekainaren 1etik 6ra izango da eta, besteak beste, hitzaldiak eta erreka garbitzeko irteera egongo dira

Herriko iraunkortasunari buruzko informazio orriak banatuko dituzte etxez etxe

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udaleko Ingurumen batzordeak Aste Berdea antolatu du bigarren eta eguaztenean aurkeztu zuten Mikel Etxaniz Ingurumen zinegotziak eta Naiara Corcuera Ingurumen teknikariak.

Mikel Etxanizek azaldu zue-nez, iaz ez bezala aste baten barruan kontzentratu nahi izan dituzte ekintza guztiak: "Iaz Baso Astea egin genuen martxoan eta ekainean Aste Berdea. Bada, aurren, Zuhaitz Eguna egin dugu martxoan eta orain Aste Berdea egingo dugu. Hain justu ere, ekainaren 1etik 6ra". Hala ere, ekitaldietako bat aste horretatik kanpo egingo dutela aurreratu zuen Ingurumen zinegotziak. Hain zuzen, ekainaren 15ean



Naiara Corcuera teknikaria eta Mikel Etxaniz zinegotzia San Martin plazan. M.B.

zaborraren kudeaketaz Jordi Colomerrek egingo duen hitzaldia, "datorren astean ezingo du-eta", Mikel Etxaniz zinegotziaren arabera.

Bestalde, "biodibertsitatearen urtean gaudela kontuan izanda, Aste Berdearen barruan askotariko gaiak" landuko direla azpimarratu zuen zinegotziak.

Aste Berdearen egitaraua

Ekainak 1

19:00etan, hitzaldia: *Bergarako animalia ugaztunen inbentarioa, distribuzioa eta kontserbazio egoera*. Hizlaria: Jorge Gonzalez biologoa. Osoko bilkuren aretoan.

Ekainak 3

18:00etan, Usondoko zuhaitzak ezagutzeko bisita gidatua, Maitane Aritzabaletarekin. *Usondoko zuhaitzak* liburuxka banatuko dute. 20:00etan, zinekluba: *Nuestro pan de cada día*. Zabalotegi aretoan.

Ekainak 4

18:00etan, haurren kale antzerkia: *Baso sorgindua*, Patata Tropikala taldearekin, San Martin plazan.

Ekainak 5, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna

10:00etan, erreka garbitzeko irteera. San Martin plazatik abiatuko dira.

Ekainaren 1etik 7ra

Erakusketa: *Gure ibaiak*, osoko bilkuren aretoan, astegunetan, 18:00-21:00 eta zapatuetan, 12:00-14:00.

Ekainak 15

19:00etan, hitzaldia: *Hondakinen kudeaketa gure bailaran*. Atez ateko zabor bilketa. Hizlaria: Jordi Colomer, osoko bilkuren aretoan.

Ekainaren 1etik 26ra

Erakusketa: *3Rs = -CO2*. Hondakin handiak nola birziklatzen diren ikusteko aukera Emausen eskutik, osoko bilkuren aretoan, astegunetan, 18:00-21:00 eta zapatutan, 12:00-14:00.

Ekainak 18

Ingurumen heziketa San Martzialen, DBHko 1. mailakoekin.

AZPIMARRATZEKOAK

Bergarako iraunkortasunaren egoera delako informazio orria ere banatuko dute Aste Berdearen barruan datorren astean barrena. Orriak Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren exekuzio-maila eta tokiko iraunkortasunaren adierazleak jasoko ditu. Naiara Corcuera Ingurumen teknikariak azaldukoaren arabera, Bergarako Agenda 21 2006an sortu zen eta 2009an egin da lehenengo ebalua-

keta. Ekintza planak sei lerro estrategiko ditu eta 87 ekintza batzen ditu. Urtetik urtera ekintzok gauzatzen joan dira eta hiru urtera %37 ezarri dira, EAEko batez bestekoa baino gehiago -32,8.

Corcuera azpimarratu zuen, baita ere, ekainaren 5ean, zapatua, egingo den erreka garbiketarekin batera -izena eman behar da kultura etxean- ibaiaren egoera ekologikoa aztertuko dutela eta baita bisoi europarraz jardun ere.

HEZKUNTZA > UNED

UNEDeko udako ikastaroetan izena emateko epea astelehenean bukatuko da

M.B. > BERGARA

Astelehenean, maiatzaren 31n, bukatuko da UNED ikastetxeko udako ikastaro eta tailerretan

izena emateko epea. Bederatzi-garren aldi honetan, guztira 31 dira ikastaro eta tailerrak -bost tailer eta 26 ikastaro-, lau arlo-

tan banatuta: hain justu ere, Humanitatea, Psikologia Aplikatua, Gizarte Zientziak eta Hizkuntzak.

Bi eta lau egun arteko iraupena izango dute eta eskolak emango dituzte UNEDeko irakasleek eta, besteak beste, EHUko, Madrilgo Unibertsitate Complutenseko, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Oviedoko Arkeologia Museoko eta Arizmendiarrietaren Adiskideak elkarteko irakasle eta adituek.

Horrez gain, UNEDeko ikasleei, INEMen izena emanda dutenei eta Kutxako bezeroei prezio berezia egingo zaie.

IZENEMATEA

Izena emateko edo informazio gehiagorako jo UNEDeko idazkaritzara -San Martin Agirre plaza 4-, www.uned.es/ca-bergara webgunera, idatzi info@bergara.uned.es helbidera edo deitu 943 76 90 33 telefono zenbakira.

TxARRAN TxA
jaTeTxea

**EGUNEKO
MENUA
eta KARTA**

Zubiaurre 33 • Bergara
943 76 15 84

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urate 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

DRAGON ORIENTAL

Etxera eramaten dugu

Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Osintxu, Antzuola edo
Soraluzera + 2 €

943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ZENBAT IRAKATSI DIDAZUN

Matrikulazio epea:
Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra



Mariaren Lagundia
ikastola

Espaloia 1
Tel.: 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net



PROFESIONALAK GERTATZEN 1976-TIK

BERRIA Praktika European egiteko aukera (Erasmus)

% 95-eko lanbideratzea

Plaza mugatuak

informazio gehiago
www.mlagundia.net

63€ hilean

JAIK > PAZKOAK

Udalak eskerrak eman nahi dizkie jaietan lan egin dutenei

Mendekoste jaien biharamunean, Udaleko arduradunek balorazio positiboa egin dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Mendekosteak bukatuta, jaien balorazioa egin du Kultura teknikari Enara Minguezek: "Balorazio positiboa egiten dugu. Azkeneko urteetan bezala, jende gutxiagorekin kalean, baina eguraldia lagun, egitarauan zegoen guztia aurrera eroan da; hortaz, balorazioa positiboa da".

Aurtengo berrikuntzei dago-kienez, zapatuan jokaturako goitibehera lehiaketak izandako erantzun ona aipatu du zinego-tziak -10 parte-hartzaile- eta baita dantza solte txapelketan lehia-



Koadrilen Eguneko bi irudi: herri bazkaria San Martin plazan eta koadrilen arteko herri kirolak zezen-plazan.



M.B.


tutako bikote kopurua ere -23 bikote-. Horrekin batera, astelehen eguerdian eta gauean Espo-loiko camp dantzaldian batuta-ko jende kopuru handia ere azpi-marratu du.

Koadrilen arteko herri kirol lehiaketa eta herri bazkaria ere ekarri ditu gogora eta aurreratu du datorren urteko bazkarian aurten baino jende gehiago batzen saiatuko direla.

Bukatzeko, Minguez zinego-tziak eskerrak eman nahi izan dizkie jaietan lan egin duten txos-netako kideei, antolakuntzakoei, oro har, eta kale garbitzaileei, "jaiak posible egiten dituztelako".

JENDARTEA > GASTRONOMIA

Bailarako sei sukaldarik pintxoak banatu zituzten



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

M.B. > BERGARA

Debagoieneko V. jardunaldi gastronomikoen barruan pintxoak banatu zituzten martitzenean San Martin plazan.

Mankomunitateak eta bailarako sei jatetxek antolatutako jardunaldiotan, bakailaoa eta Debagoieneko ortuko produktuak dira osagai nagusiak, eta, ondorioz, San Martin plazan banatu zituzten pintxoak osagai horiekin egindakoak ziren.

Hain justu ere, bosgarren jardunaldi gastronomikoak aurkezteko balio izan zuen martitzene-ko ekitaldiak.



Jatetxeetako ordezkariak San Martin plazan pintxoak erakusten.

M.B.

BAKAILAOA ETA BARAZKIAK

Ekainaren 1etik 30era izango dira jardunaldiak eta sei jatetxek parte hartuko dute: Arrasateko Hilario; Bergarako Lasa; Leintz Gatzagako Soran; eta Oñatiko

Etxe-Aundi, Goiko Benta eta Arantzazuko Santutegia hotelak. Hilabete horretan emango dituzten bakailao eta barazkiz egindako menu bereziek 33 eta 40 euro arteko prezioa izango dute.

oharrak

HITZALDIA

> Bizkarraren zaintzari buruz-ko hitzaldia San Joxeperekin

El cuidado de la espalda y las articulaciones delako hitzaldia egongo da ekainaren 2an, 17:30ean, San Joxepe egoitzan, Kutxak antolatuta.

ATE IREKIAK

> Ate irekien jardunaldia Miguel Altuna institutuan bihar

Institutuko instalazioak ezagutu nahi dituen edonorendako egongo dira zabalik ateak. Aurkezpen hitzaldia 11:00etan izango da.

KIROLA

> Zabaldute izenematea udako kirol kanpainen

Ekainaren 4ra arte eman ahal izango da izena Agorrosinen (943 77 70 95). Ume zein nagusiendako eskaintza berezitu eskainiko dute.

JOKOAK

> Xiba jokoetarako izenematea zabaldute

Udaleko Euskara Zerbitzuak UEMA egunean (ekainaren 12an Mallabian) egingo diren herri arteko Xiba jokotarako taldea osatu nahi du. Taldeak zortzi lagun izan behar ditu: lau gizonezko eta lau emakumezko. Izenematea da maiatzaren 31ra arte Euskara Zerbitzuan (943 77 91 66) edo UEMAn (946 27 91 95).

IBILALDIA 2010

> Ibilaldira joateko autobusa antolatuko du Aranzadik

Txartelak eskura daitezke idazkaritzan hilaren 28ra arte, 08:30-18:00 ordutegian.

ZOZKETA

> Pilota elkartek eman ditu dagoeneko zozketaren sariak

5.974 zenbakiari egokitu zaio lehen saria, buruz buruko pilota finalerako bi sarre- eta 500 euro, eta Ibon Etxabarri izan da saritua. Bigarren saria 9.066 zenbakiari egokitu zaio eta bi pertsonarendako aste bukaera Kantabriako Palacio de Guevara hotelean eta 250 euro Gorka Irizarrek jaso ditu. Hirugarrena 3.921 zenbakiari egokitu zaio eta bi lagunendako afaria Erreki jatetxean eta 100 euro Estitxu Arantzabalek jaso ditu.

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

SANTOS



Etzetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak



Nagusien mailako irabazleak Agurne Barruso alkatearekin eta Soraluzeko ordezkariarekin.

GOIENKARIA

PILOTA > BERGARA HIRIA

Giroa bikaina eta pilotarien lana ona

Antsotegi eta Lana samur nagusitu ziren; Gorka eta Galarragak lan handiagoa egin behar izan zuten

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Antsotegi eta Lana 22 urtez azpi-koetan eta Gorka eta Galarraga nagusien mailan izan dira aurtengo Bergara Hiria txapelketa-ko irabazleak. Udal Pilotalekua beteta, giro bikainean, astelehen iluntzean jokatu zituzten finalok.

22 URTEZ AZPIKOAK

Jauregi eta Aizpuru gipuzkoarrak izan zituzten aurkari Antsotegi eta Lana nafarrek finalean. Agudo hartu zuten aurre markagailuan gorriek. 21-14 jarri ziren aurretik, eta Jauregik markagailua itxuratzeko tanto batzuk egin zituen arren, Aizpuruk goi-

ko koltxoira bidalitako pilotarekin amaitu zen lehia, 22-18.

NAGUSIAK

Larrañaga eta Untoria eta Gorka eta Galarraga izan ziren aurrez aurre. Atzelariak lehia ederra izan zuten: biek eman zioten asko pilotari, eta aurrelariak tanto politak eta hutsak tartekatu zituzten. Azkenean, baina, Galarraga nagusitu zitzaion Untoriari. 13-22 amaitu zen partidua.

KULTURA > LEHIAKETA

Bihar banatuko dituzte Koldo Eleizalde sariak

Udal Pilotalekuan izango da sari banaketa, eguerdiko hamabietan

A.E. > BERGARA

Dagoeneko erabaki dute zeintzuk izango diren Koldo Eleizalde lehiaketako saridunak.

25. edizioa izan da aurtengo eta antolatzaileak gustura daude, inoiz izan den parte-hartzerik handiena izan duelako: guztira, 675 lan aurkeztu dituzte lehiaketan. Generoei dago-kienez: ipuin idatzia, 461; bertsoa, 12; komikia, 87; ipuin kontaketa eta antzerkia, 33; txiste

eta umorezko pasadizoak, 41; eta eskola irratia, 41. Esan behar da eskola irratia generoa berria dela.

SARI BANAKETA BIHAR

Sariak bihar, zapatua, banatuko dituzte, Udal Pilotalekuan 12:00etan egingo den ekitaldian. Gainera, bi oroigarri txiki ere banatuko dituzte: alde batetik, ia urte hauetan guztietan edizio bakoitzerako irudia egin duen Jon Balentziagari oroigarri txiki bat emango zaio; eta baita urteotan epaimahai lane-tan ibili diren Migel Angel Elkoroberezibarri, Juan Martin Elexpururi eta Esteban Antxustegiri ere.

KIROLA > ESKUBALOIA

Igoera faseko azken-aurreko lehia domekan jokatu dute

A.E. > BERGARA

Josetxo Muniategiren mutilek irabazi beharra dute igoera postuarekin amesten jarraitu gura baldin badute. Igoera hori lortzeko lehian, hurrengo pausoa Gasteizko Corazonistas gainditzea izango da. Partidua domekan izango da, 12:30ean, Labegaraieta kiroldegian.

Sailkapenari begira jarrita bi taldeen artean alde nabarmena dago. Bergararrak laugarren postuan daude bederatzi

punturekin eta Corazonistas, aldiz, azken postuan dago puntu bakarrarekin.

BI TALDE IGOKO DIRA

Bi talde onenak igoko dira mailaz. Geratzen diren bi partidua irabazita ere, mahoneroek besteek egiten dutenaren zain egon beharko lukete. Muniategiren ustez, bilbotarrak dute giltza. Hortaz, aste bukaeran egiten dutenaren zain egon beharko dute bergararrak.



JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentroetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

AURREMATRIKULA:

Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra (biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Uztailaren 7tik 13ra (biak barne)



J.M.IPARRAGIRRE B.H.I

Santa Barbara bidea z/g – 20700 URRETXU (Gipuzkoa) • Tel./ Faxe: 943 72 14 03 / 943 72 14 13
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es

■ ELKARRIZKETA: BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

"Musikak eragina dauka garapen emozional eta intelektuallean"

NEREA MENOR

Bergarako Musika Eskolak 25 urte bete ditu. Ibilbide luzea egin dute urte hauetan zehar: musikal arrakastatsuak, ikas-taro eskaintza zabala eta irakasle profesionalen bidez ikasle profesional asko irten dira eskolatik. Musikak haurren garapenean duen garrantzia aldarrikatzen dute eta ikasleengan dohaiak ikusten dituztenean musikarekin jarraitzea animatzen dituzte.

Musikan hasteko zein da haurren adin egokiena?

Amaren sabelean dagoenetik umeak musika sumatzen du. Amak musika entzuterakoan sentitzen dituen emozioak haurrari transmititzen dizkio. Eskolan 3 urteko umeek biolina jotzen has-teko aukera dute. Horretarako, Suzuki metodoa erabiltzen dugu.

Zer da Suzuki metodoa?

Ama hizkuntzaren metodolo-gian oinarritzen da: entzun, imi-tatu, memoria garatu... Biolina jotzen ikasten dute, hitz egiten ikasten duten moduan. Gurasoen inplikazioa funtsezkoa da.

Beraz, haurrek biolinarekin hasi behar dute musikan?

Beste aukera batzuk ere badi-tugu. 4 urterekin musika eta mugimenduko tailerrean has daitezke. Musika ezagutu, sentitu, barnera-tu eta ikasiko dute modu ludiko-an. Bigarren aukera ahotsean oinarrituta dago. Instrumentu naturala denez, musika egiteko aukera asko ematen ditu. Hasibe-rrien abesbatza dute 4 urtetik aurrera. Helburu nagusia hau-rrak ahotsaren erabilera ona egi-tea eta hori erabiliz musika mota ezberdinak lantzea da.

Musika Eskolan hasi eta gero-ra, zer?

7 urterekin, eskolan moduan, musika irakurtzen hasten dira, eta ondoren instrumentua ikasi nahi badute aukera zabala daukate.

"Miserableak" Euskal Herrian egindako lehen musikal muntatua izan zen"

Ze instrumentu jo ditzakete eskolan?

Bost sail daude. Polifonikoak: pianoa, akordeoia, gitarra, orga-noa. Sinfonikoak: biolina, biola, biolontxelo, klarineta, flauta saxofoia, oboea, fagota, tronpeta, tronpa, tronboia, bonbardinoa, tuba eta perkusioa. Herrikoia: txistua, panderoa, trikitia eta albo-ka. Ahotsa: kantu bakarlaria, ahots teknika eta abesbatzak. Moder-noa: gitarra elektrikoa, baxu elek-trikoa, bateria eta konboak.

Eta prestakuntza osatzeko?

Fundatzaileek garbi zeukaten lehenbailehen taldeak osatu behar zirela prestakuntza osatzeko. Egun, Gazte Banda, Orkestra Sin-fonikoa, txistu taldea, trikiti tal-dea, akordeoi orkestra, hasibe-rrien abesbatza, haurren abesba-tza, haize taldea, sokazko ganbera taldea eta konboak daude.

Talde horiek guztiak plazara-tzeko ze ekitaldi egiten duzue?

Gabonetakoa eta udaberriko kontzertua ikasle gehien biltzen dituzten kontzertuak dira. Apiri-lean Musika zikloan ikasleen lana ezagutarazi eta ekintza ezberdinak



Askotariko instrumentuak jotzen ikasteko aukera dago.

GOIENKARIA

egiteko aukera ematen du: elkar-trukeak, ipuin pedagogikoak, antzerki eta dantza tailerrak...

Etxeko marka ikuskizun han-diak ere izan dira.

Bai. *San Martzial Estanpekin* hasi ginen, ondoren *Miserableak*, Euskal Herrian egiten zen lehe-nengo musikala muntatu genuen.

"Irakasleak prestakuntza eta esperientzia zabaleko profesionalak dira"

Orfeoia taularatutako *Oliver* eta *Seussen mundua* musikaletan orkestra, bakarlaria eta haurrak gure eskolakoak izan ziren. Gure ikasle ohien –Oihan Vega eta Joxe-mi Etxebarria– *Olentzero&Co.* musikal berrian ere hori izango da gure eginkizuna.

Musikari profesionalak irten dira eskolatik?

Euskal Herriko musika esko-letan eta atzerrian daude hemen ikasi duten irakasleak. Musika Eskolan 530 ikasle eta 26 irakasle daude. Azken horiek prestakun-tza eta esperientzia zabaleko pro-fesionalak dira eta denak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean erregistratuta daude.

Musika ikasiz gozatu! Zatoz musika eskolara!



Matrikula zabalik

Espoloia zg



943765780

■ ARGAZKILARITZA

Photoshop ikastaroak emango ditu KB Photoestudio dendak

LEIRE KORTABARRIA

KB Photoestudio argazki dendak beste eskaintza bat plazaratu du: argazkilaritza jendeari hurbiltzeko ikastaroak. Zabalik dute urte osoan zehar eskainiko dituzten Photoshop ikastarotarako izenematea. Bibi Andueza arduradunak hauxe dio: "Argazki estudioen eta jendearen arteko lotura falta igarri dugu, eta gure helburua da hutsune hori betetzea".

Photoshop ikastaroa irailean hasteko asmoa dute KB Photoestudioko arduradunek. Bibi Anduezak ematen dizkigu xehetasun gehiago: "Oraingoz, Photoshopekin hasia erabaki dugu; maila herrikoia izango da, Photoshopekin beldurra kentzeko eta erabiltzen ikasteko. Bi edo hiru lagunekoa taldetxoan emango dugu, eta pertsonalizatua izango da, norberaren mailaren arabera. Ikastaroa emateko, estudioko beheko solairua egokituko dugu. Parte-hartzaile bakoitzak bere ordenagailua izango du". "Orain, izena emateko aukera dago, dendara bertara joanda, telefonoz deituta edo www.kbphotoestudio.com webgunean zehazten den helbidera idatzita.

Bibi Anduezak azaltzen digu ikastaroa antolatzeko asmoa nondik nora sortu zitzaien: "Lotura falta ikusten genuen argazki-dendak eta herritarren artean; batez ere, argazkilaritza digitala hasi zenetik; eta, bestalde, jendeak bazeukan interesa, zalantzak



KB Photoestudio dendak argazkilaritzarekin lotutako eskaintza zabala ematen du.

KB PHOTOESTUDIO

Helburua da argazkilaritza jendeari hurbiltzea eta jendearen interesa asetzia

zituen, galderak egiten zizkigun... Horregatik, gure asmoa da argazkilaritzaren gainean mugimendua sortzea: jendeak jakin dezala hemen aukera duela ikas-

Ikastaroak dendan izango dira, oso talde txikian; dendak ipiniko ditu ordenagailuak

teko, zalantzak galdetzeko...". Ikastaro hauek urte osoan zehar eskainiko dira eta beharren eta eskaeren arabera egokitzen joango dira.

Erreportajeak, materiala, errebelatua... ere eskaintzen ditu KB Photoestudiok

ERREPORTAJEAK, MATERIALA... Barrenkaleko KB Photoestudio dendak bestelako zerbitzuak ere ematen ditu, mota askotakoak: argazki-erreportaje sozialak

-ezkontzak, *book*-ak...; argazkilaritzaren gaineko denetarikoa materiala saltzen du -reflex kamerak, kamera digitalak, konpaktuak, osagarriak...; argazkiak errebelatzea, momentuan bertan edo laborategian; eta argazkiak markoztatzea edo tratamendu berezia ematea. Horretarako hainbat aukera dauzka bezeroak. Horien bidez, argazkiak ordenagailuko disko zurrunean gorde beharrean, beste euskarri batzuetan jartzen dira, modu apainean.

www.kbphotoestudio.com

Barrenkale 35, Bergara ; 943 76 24 12



ENPLEGUA > LANPOSTU DEIA

Enplegu Planaren lehen lanpostuen deialdia egin dute

Lehen mailako ofizial bi eta lau peoi gura dituzte; izenemate epea ekainaren 4a arte dago

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Udalak abian jarri du martxoan iragarri zuen Enplegu Plana. Astelehenean hasi zen lanean plan hori koordinatuko duen teknikaria, Argiñe Larrea, eta dagoeneko lehen sei lanpostuen deialdia egin du.

EKAINAREN 14AN LANEAN

Sei langile horiek bi lan eremu ezberdinetarako behar ditu Udalak: batetik, herriko kale bazterrak egokitzeko proiektua dago. Lehen mailako ofiziala eta bi peoi behar ditu horretarako eta haien zereginak izango dira: ur saneamendu sareen mantentze-lanak; espaloi, lorategi eta gainerako gunen publikoen txukuntze-lanak; ataripeen garbiketak...

Bestetik, landa eremuak zaindu eta mantentzeko proiektua dago. Horretarako, lehen mailako beste ofizial bat eta bi peoi gura

ditu. Haien zereginak honakoak izango dira: Udalaren bide eta eremuak berreskuratu, txukundu eta zaindu; landa inguruetako eta baserrietarako hodi eta arekak garbitu...

Interesa duten herritarrek ekainaren 4ra bitartean eman behar dute izena honako webgunean: www.redtrabaja.es. Hor jasotako izenak bakarrik hartuko dituztela kontuan iragarri dute eta bi baldintza bete behar dituzte lanposturako eskaera egiten dutenek: Aretxabaletan gutxienez urtebetean errolatu-

ta egotea eta langabea izatea. Eskaerak aztertzeko hamar egun izango ditu Udalak eta ekainaren 14an lanean hasiko dira hautatutako sei langileak. Hiru hila-beterako izango dute lana; hau da, irailaren erdira arte.

ENPLEGU GARAPEN TEKNIKARIA

Herriko langabezia tasa izugarri igo dela azken urtean (%10) ikusita erabaki dute abian jartzea Enplegu Plana EAJk eta Aralarrek elkarlanean. Lanpostuak sortzearekin batera, formazio saioak eskaintzea herritarrei eta

ekintzailetasuna bultzatzea da plan horren asmoa.

Hori guztia bideratzeko Enplegu Garapen teknikaria hartu dute. 48 lagun aurkeztu ziren postu horretara eta Dimako (Bizkaia) Argiñe Larrea hautatu zuten, hain zuzen astelehena ezker lanean dagoena. Udaletxean dauka bulegoa eta lan jardun osoz egongo da urtebetean. Larrearen zereginen artean daude herriko errekurtsioak aztertzeko; jardura ekonomiko berriak identifikatzeko; eta enpresa egitasmoei aholkularitza ematea.



Argiñe Larrea, Enplegu Garapen teknikaria, udaletxeko bulegoan.

M.A.

DANTZA > OSPAKIZUNA

Haur Dantzarien Eguna da etzi, musika eskolak antolatuta

160 bat neska-mutiko elkartuko dira eta herriko hainbat gunetan dantzan egin

M.A. > ARETXABALETA

Domekan, hilak 30, dantzari gaztetxoekin beteko da herria Haur Dantzarien Eguna ospatzeko. Soraluez (Urrats), Oñati (Oñatz) eta Arrasatetik (Txikitxu eta Lore Gazteak) datozen taldeek gurearekin (Leizarra) egingo dute bat herriko kaleetan dantza erakustaldiak egiteko.

ALARDE TXIKIA EGUERDIAN

Herriko Plazan elkartuko dira (10:30) Haur Dantzarien Egunean parte hartuko duten neska-mutikoak, 160 inguru –Aretxabaletakoak hiru talde–. Gero, taldeetan banatu eta herriko hainbat gunetara joko dute erakustaldiak egitera (11:00): Santa Kurtz kalea, Ilargi plaza, Mitarte plaza eta Durana kalea.

Ondoren, Herriko Plazan elkartuko dira guztiak eta alarde txikia egingo dute (12:15). Horretarako, Leizarra musika eskolako dantzari guztiak etorriko dira –ez bakarrik erakustaldia egin dutenak– eta plaza bete egingo da 230 bat neska-mutikorekin. Bukatutakoan, bazkaltzera joango dira guztiak (13:30), eta kanpotik etorritakoak etxe eta elkarteeetan hartuko dituzte.



Leizarra taldeko dantzarien saioa Otala Zelai egunean.

M.A.

Arratsaldean alardea egingo dute (17:00), ospakizunari bukaera emateko; baina bukatu aurretik merienda jasoko dute dantzariak antolatzaileen eskuetatik.

HEMENDIK AUERRERA MAIATZEAN

Urte askoan Loramendi Dantza Taldearen ardura egin dira herriko dantzariak, eta orain, Leizarra musika eskolak hartu du haren lekukoa. Horregatik Leizarra Dantza Taldea izango dute izena hemendik aurrera. Iaz ez zen egin Haur Dantzarien Egunik gurean, eta musika eskolako hainbat gurasok eskatu dute

jarraipena ematea horri. Guraso horiek gertu azaldu dira laguntzeko eta hainbat konpromiso hartzeko.

Hala, bada, musika eskolak erabaki du aurrera egitea eta ospakizun hori ikasturteko egitarauan sartzea. Horregatik, irailan beharrean maiatz inguruan egingo dute hemendik aurrera Haur Dantzarien Eguna, ikasturte bukaeran. Dantzan dabiltzanen artetik hiru taldek bakarrik hartuko dute parte haurren egunean eta laster joango dira Soraluezera (ekainak 6), Arrasatera (ekainak 20) eta Oñatira (irailak 19).

HEZKUNTZA > JAIALDIA

Udaberri jaia egingo du bihar Arizmendi ikastolak

Irteera, jolasak, talo tailerra eta Aramaioko sagardogileen erakusketa egongo dira plazan

M.A. > ARETXABALETA

Arizmendi ikastolako Basabeazpi guneko Udaberri jaia egingo du bihar, hilak 29. Bosgarren aldiz antolatu dute eta udaberriari ongietorria eginaz herritarrekin batera ondo pasatzea dute helburu.

TALOA ETA SAGARDOA

Irteeratxoa eginda emango diote hasiera ospakizunari; Arkarazora bidean dagoen Iturriondo parkera joango dira aurreko urteetatik lagun duten Kukua gidari hartuta (10:00).

Herriko Plazara joko dute handik (11:30) eta goiz pasa egin: jolasak ume eta gurasoen-

dako; talo tailerra; txosna sagardoa eta taloa dastatzeko eta Aramaioko sagardogile elkartearen erakusketa. Juan Antonio Aretxagak lagunduta 60 kilo sagarrekin zukua egingo dute tolare batean, eta gero probatu; gainera, sagardoaren gaineko filma emango dute.

Buruhandi eta trikitilarietara joango dira gero Basabeazpi ingurura. Bazkalostean tailerrak (15:00) eta ipuin kontaketa (16:30) izango dituzte umeek eta ospakizuna bukatzeko txokolatea hartuko dute (17:30) Kukua eta Argitxo lagun dituztela.



Ume eta gurasoen aurrean egindako jaiaren aurkezpena astelehenean.

M.A.



Paulo (laguntzailea), Alex, Iker, Juan Carlos eta Iñaki igerilariak pozik dominak lepoan dituztela.

ANDER MONEDERO

KIROLAK > IGERIKETA

Hamaika domina eskuratu dituzte Aratzeko igerilariek

Joan den aste bukaeran jokatu zuten Donostian Atzegik antolatutako Euskadiko txapelketa

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Euskadiko igeriketa txapelketa jokatu zuten joan den aste bukeran Donostian, Atzegik antolatuta, eta Aretxabaletako Aratz taldeko lau igerilari dominaz bete- ta itzuli ziren. Urtero hartzen dute parte txapelketan eta dago- neko 12. aldiz joan dira igerilari horietako batzuk; oraingoan, pozik itzuli dira, gainera.

ASTERO ENTRENAMENDUA

Entrenamendu saioetan eginda- ko lan gogorraren emaitza dira domina horiek eta pozik erakus- ten dituzte egunotan lau igerila- riek: Alex Elortondo, Juan Car- los Barkero, Iker Arexolaleibar eta Iñaki Iturbek. Guztira, 11 domina eskuratu zituzten: urrez- koak bost, zilarrezko bat eta bron- tzezkoak beste bost.

Pedro Balentziaga dute entre- natzaile eta haren begiradapean egiten dituzte igeriketa saioak eguaztenetan Eskoriatzako kirol- degian. Ondo baino hobeto eza- gutzen ditu Balentziagak eta bakoitzak duen guztia eman dezan estutzen ditu oihi artean. Hala, ezin hobeto ibili ziren crawl eta bular modalitateetan eta tal- deko saioan, eta horietan esku- ratu dituzte domina guztiak. Entrenatzen jarraitzeko indarra eskuratu dute lau igerilariek domina horiekin.

KARATEA

Vazquez eta Hervas txapeldunak Azkoitian

M.A. > ARETXABALETA

Udaberriko karate txapelketa jokatu zuten joan zen zapatuan Azkoitiko kiroldegian eta Are- txabaleta Kirol Elkarteko hainbat karate jokalaririk izan ziren: sei, benjamin mailan; bakarra, kimue- tan; eta bi, haurren mailan. Hain zuzen, haurren mailako bi muti- ko horiek garaile izan ziren kumi- te modalitatean: Oxel Vazquez, 43 kiloz azpikoetan eta Iker Hervas, 57 kilotik gorakoetan.

DENBORALDI BUKAERA

Karate denboraldia bukatzen dabil eta bihar beste bi txapelke- ta izango dituzte Bizkaian: Eus- kadiko eskola arteko txapelketan izango da Oxel Vazquez; eta Pre- sidente txapelketan, Odei Vaz- quez eta Ekaitz Irusta. Eta ekai- naren 5ean Debagoieneko klub arteko txapelketa jokatu dute.

> GAZTEAK

Txosna jarriko du Gazte Ekimenak udaletxe zaharraren aurrealdean lau egubakoitzetan

Gaur hasi eta hurrengo hiru egubakoitzetan –ekainak 4, 11 eta 18– txosna jarriko du Gazte Ekimenak Durana kalean. Haren asmoa da eguraldi ona eginez gero kalean jartzea eta txarra eginez gero udaletxe zaharreko atarteetan.

Txosna jartzea erabaki dute dirua ateratzeko asmoarekin, eta diru horrekin gero ekintza ezberdinak antolatu.

> ODOL ATERATZEAK

Odola ateratzera etorriko dira osasun etxera astelehenean eta ekainaren 7an eta 15ean

Udaberriko odol ateratzekak egingo dituzte datozen egunotan Ara- bako odol bankuko kideek; hortaz, herritarrek odola ematera ani- matu gura dituzte. Astelehenean, hilak 31, eta ekainaren 7an, aste- lehena, eta 15ean, martitzena, egongo dira osasun etxean (16:00- 20:00). Herritarren zalantzak argitzeko ere gertu izango dira bertara datozen erizainak.

> AURKEZPENA

'Zutik Euskal Herria' ezker abertzalearen proposamena aurkeztuko dute martitzenean

Zutik Euskal Herria izena duen proposamena aurkeztuko du ezker abertzaleak datorren martitzenean, ekainak 1, Arkupen (19:00). Eskualde mailako aurkezpen ekitaldia eta batzarra izango dira eta interesa duten herritar guztiendako zabalik dagoela jakina- razi dute antolatzaileek.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

MAIATZEKO ZOZKETA

Telefona: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA

Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



UMEENTZAKO LIBURUAK

Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



ELHUYAR-EN PAMPINA ETA JOKUA

Bidali KLUBA PAMPINA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



SKUNK-FUNKEKO KAMISETA

Bidali KLUBA KAMISETA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



MUNDUMIRAKO MATERIALA

Bidali KLUBA MUNDUMIRA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



SARI NAGUSIA APIRILA-EKAINA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
GAU 1 TXOPEBENTA LANDETXEAN



- Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
- Basetxeta Auzoa.
- Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)
- www.nekatur.net/txohebenta
- www.toprural.com

Maiatzean 20 urte beteko ditugu;
Estatuko lehenengoak izan ginen.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiak zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

UMEAK > ESKOLAKO AGENDA 21

Ekitatearen gaiaz jardun dute aurten ikasleek

Lehen Hezkuntzakoek etorkinak, elikadura eta pertsonen arteko lan banaketa landu dituzte

DBHko lehenengo eta bigarren ziklokoek, berriz, udalerriko pobrezia eta migrazioa aztertu dituzte

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Bisita berezia izan zuen udalbatzak eguazteneko osoko bilkuran: Eskolako Agenda 21 programaren harira, Luis Ezeiza herri ikastetxeko eta Arizmendi ikastolako Almen guneko ikasleena. Aurten ekitatea aztertu dute, Ibarraundi museoaren laguntzarekin, eta horren gaineko ondorioak aurkeztu zizkieten udal ordezkariak.

Lehenengo, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetakoez hitz egin zuten. Etorkinen gaia landu zuten; Eskoriatzan zenbat dauden eta nondik etorri diren aztertu zuten: 24 herrialdetako jendea dago uda-

lerrian bizi izaten. Herrialde horietan zein hizkuntzatan hitz egiten duten eta Eskoriatzara heltzen direnean Udalak harrera egiteko dituen baliabideak jorratu zituzten. Hori guztia dela-eta, herrialde horietako ohiturak kale-ateratzeko festa bat antola dezan eskatu zioten Udalari; baita harrera protokoloak hizkuntza gehiagotara itzultzea ere.

BERTAKO PRODUKTU GUTXI

3. eta 4. mailetakoez, berriz, elikadura landu zutela azaldu duten. Hasteko, herriko dendetan galdetgia egin zuten, Eskoriatzan ze-



Osoko bilkuren aretoa haurrez bete zen joan den eguazten arratsaldean.

IBARRAUNDI

saltzen den jakiteko. Jarraian, museoan, udalerrian zenbat base-rri dauden eta zenbat jende bizi den baserrian ekoizten duenetik aztertu zuten. Ondorioztatu zuten ekoizten denarekin ez dela nahikoa eskoriatzar guztiei jaten emateko, eta, gainera, baserriek ekoizteari utzi diotela eta produktuak urrutitik ekartzen dituztela.

Hori dela eta, Udalari honako konpromisoak eskatu zizkieten: lur publikoa langabeei uzteko aukera lantzea, ikastetxeetan eta jatetxeetan bertako produktuen berri ematea, baserritarrei langabeak kontratu ditzaten

laguntzak ematea eta ortua lantzeko ikastaroak antolatzea.

Bestalde, 5. eta 6. mailetakoez pertsonen arteko lan banaketarekin egin zuten lan. Udalean eta lantokietan lana nola banatzen den aztertzeaz gain, GOIENKARIAko iragarkiei ere erreparatu diete: lan eskaerei eta eskaintzen atalari. Udalari eskatu zioten gutun bat bidal dezala GOIENKARIAra, lanak sexuaren arabera ez banatzeko; tokiak elbarriendako ego- kitzea, herritar guztiei lan aukera eta baldintza berdak ematea eta emakumeen eskubideen alde lan egitea ere eskatu zioten.

ENPRESA SOLIDARIOAK

DBHko 1. ziklokoek pobrezia jorratu zuten, Udaleko Gizarte Zerbitzuetara joanda. Beharra daukan jendea badagoela eta, hortaz, enpresa solidarioak zabaltzeko laguntzak eman eta daudenen berri eman dezan eskatu zuten.

DBHko 2. ziklokoek, azkenik, migrazioa landu zuten. Ikasleen familiak aztertu eta gobernu kanpoko erakundeek egiten duten lana ezagutu zuten. Horren harira, garapen bidean dauden herritarrei aurrekontuaren %0,7 ematen zaiela ziurtatzea eskatu zioten.

KIROLA > JAIALDIA

Kirol elkartearen eguna da bihar

Askotariko kirol jardueren txapelketak eta erakustaldiak egongo dira bereziki

M.B. > ESKORIATZA

Aurten ere Eskoriatza kirol elkarteak bere eguna ospatuko du. Bihar, zapatua, izango da hori. Askotariko kirol jarduerak ikusteko aukera egongo da 12 orduz jarraian. Ekimenak 11:00etan hasiko dira, Intxaurtxuetan egingo dituzten umeendako jolasekin. Ordu laurden geroago, betaranoek saskibaloia partidua jokatu dute; eta haien norgehiagoka amaitzean, areto futbol partidua izango da.

Kiroldegi barruan hainbatek kirola egiten duten bitartean, beste batzuek tortilla lehiaketan hartuko dute parte; antolatzaileek azaldu dute tortillak etxetik eginda eroan beharko direla 11:30etik 12:30era, eta epaimahai

independente batek horiek das-tatu eta jarraian onenak aukeratu dituela. Bi sari banatuko dituzte: bi lagunendako afariak Mendigoia eta Txalaparta jatetxeetan.

MOTORRAK, 13:00ETAN

Motorren hotsak ere ez dira faltako aurtengo jaialdian: 13:00etan, ongietorria egingo diete motorzaleei, Intxaurtxuetan. 15:00etan, berriz, herri kirol bazkaria egingo dute, Mendi-goia hotelean.

Arratsaldean, 16:45ean hasiko dira osteraren ekimenak. 20:00ak bitartean, areto futbol leko eta saskibaloiko trebetasun txapelketak eta borroka-arte eta gimnasia erritmikoko erakusketak egingo dituzte Intxaurtxuetan eta kiroldegi barruan. 18:30ean, gainera, parrillada handia egongo da. Eskoriatza kirol elkartearen eguna 23:00etan amaituko da, txupinazoarekin.

JAIK > LEHIAKETA

Zabalik dago sanpedrotarako esaldia aukeratzeko epea

Herriko jatetxe baten afaria irabaziko du lehiaketan gailentzen den taldea, jaietan

M.B. > ESKORIATZA

Udalak jaietarako esaldi lehiaketa jarri du martxan. 13 urtetik gorako edozein eskoriatzarrek parte hartu ahal izango du, baina hiru eta bost lagun bitarteko taldeak sortu beharko dituzte horretarako. Talde bakoitzak, gutxienez, esaldi bat aurkeztu beharko du, eta, gehienez, gura beste. Jaiak ondo pasatzera gonbidatuz edo horren gaineko leloak asmatuz izan daitezke horiek.

Dagoeneko aurkez daitezke esaldiak. Udaletxeko eta kultura etxeko eskapeetan jarri dituzten postontzietan utzi behar dira, ekainaren 6a baino lehen. Kartazalean taldearen izena ipini beharko dute, eta barruan, beste kartazal itxi baten, datuen txartela sartu. Internetez ere bidal daitezke proposamenak, euskara@eskoriatza.net edo www.facebook.com/eskoriatzaeuskara helbidera bidaliz.

Udaletik nabarmendu dute ez direla onartuko neurritz kanpoko kontsumoa edo jarrera sexistak bultzatzen dituzten esaldiak. Bestalde, gaineratu dute talde bakoitzak goititzen bat bakarrik erabil dezakeela eta pertsona batek talde baten bakarrik har dezakeela parte. Horren harira, azaldu dute pertsona bera bi taldetan agertuz gero, talde horien esaldi guztiak lehiaketatik kanpo utziko direla.

IRABAZLEA, EKAINAREN 9AN

Epaimahaiak (Udaleko Euskara azpibatzordeak izendatuta) ekainaren 9an iragarriko du irabazlearen izena www.eskoriatza.net webgunean, eta jaietan kartela jarriko da plazan esaldi horrekin. Aukeratzen diren beste esaldiekin pegatinak egingo dituzte. Talde irabazleari afari bat ordainduko dio Udalak, jaietan, Eskoriatzako jatetxe baten.

ONDAREA

Atxorrotz mendira irteera dago zapatuan

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA

Atxorrotzeko Erdi Aroko gaztelura eta indusketa arkeologikoetara irteera antolatu du Ibarraundik biharko, zapatua. 09:45ean abiatuko dira Ibarraunditik eta hiru ordu eta erdiko irteera izango da.

Paisaia eta natura aldetik balio handia duen ibilbide horrek oso interesgarriak diren baliabide historiko, artistiko eta kulturalak biltzen ditu.

Mendiko botekin joatea gomendatzen dute arduradunek, eta Atxorrotzen iturburua eta hamarretakoa egiteko mahaia daudela gogorazten dute.

ERAKUSKETA

Horrekin lotuta, bihar ere, Atxorrotzeko gazteluaren gaineko erakusketa irekia izango da Ibarraundin (13:00-14:00).

JENDARTEA > DEIALDIA

Donibane Lohizunera irteera egingo dute erretiratuek ekainaren 9an

Horrez gain, datorren eguaztenean 'Maitasuna eta afektibitatea pertsona nagusietan' hitzaldia egingo dute elkarten bertan

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA
Uda sasoia gainean dugula apro-
betxatuta, Antzuolako erretira-
tuek Donibane Lohizunera irte-
era egingo dute. Egun osoko irte-
era izango da, eta ekainaren 9an,
eguaztena, egingo dute.
Izena emateko epea datorren
astean izango da. Erretiratuen
elkarten bertan eman beharko
da izena ekainaren 2an eta 3an,
eguaztena eta eguena. Elkartetik
pasatu behar da 16:00etatik
18:00etara. Irteerako prezioa da
31 euro pertsona bakoitzeko.



Donibane Lohizuneko hondartza.

GOIENKARIA

HAMARRETAKOA ETA BAZKARIA
Goizean goiz irtengo dira erreti-
ratuak Antzuolatik, eta hamarre-
takoa egiteko geratuko dira bide-

an. Donibane Lohizunen goiza
pasa ostean bazkaltzera joango
dira Oiartzunera. Bazkari ederra
egingo dute, eta arratsalde pasa

Hondarribira joango dira. Hon-
darribian, besteak, beste, alde
zaharra bisitatzeko aukera izan-
go dute antzuolarrek.

HITZALDIA
Ekainaren 9ko irteeraz gain, dato-
rren asteari begira hitzaldia anto-
latu dute erretiratuek.
Maitasuna eta afektibitatea
pertsona nagusietan hitzaldia
egingo dute elkarten bertan.
Eguaztenean izango da, hilaren
2an, 17:00etan.
Erretiratuek Bizikasirekin
batera antolatutako hitzaldia
izango da.

MEMORIA LANTZKO IKASTAROA
Martitzenean hasi zuten erreti-
ratuen elkarten memoria lantze-
ko ikastaroa. 20 lagun batu ziren
eta Eva Perez de Albeniz psiko-
logoak eman zituen eskolok.
Lehenengo, memoriak zelan
funtzionatzen duen ikasi zuten,
eta ondoren hainbat ariketa egin
zituzten. Perez de Albenizek ize-
nak edo gauzak gogoratzeko
hainbat truku eman zizkien erre-
tiratuei. Ondorengo ikastaroak
izango dira ekainaren 1ean, 8an
eta 15ean.

JAIALDIA > MUNDUMIRA

Aste bukaeran zirkulazio arazoak ekiditeko autoa garajen sartzeko eskatu du Udalak

Bihar eta etzi izango da jaialdi ofiziala; gaur, herritarrei begira egingo dute jaia: kalejira eta herri afaria izango dituzte

A.E. > ANTZUOLA
Aste bukaeran Antzuolak jasoko duen bisitari kopurua dela-eta Udaletik behin eta berriz esan dute beharrezkoa ez bada ez har-
tzeko autorik aste bukaeran. Bes-
talde, herritarrei eskatuko zaie
autoa erdigunetik ateratzeko.
Horretarako, Goizperren aparka-
lekuak egokituko dituzte. Udalak,
baina, autoa kanpoan utzi barik
garajen sar dezaten ere eskatu
die herritarrei.

GAUR, HERRI AFARIA
Antzuolarrek gaur berotuko
dituzte motorrak aste bukaerari
begira: herri afaria eta kalejira
izango dituzte. Bentazarreko
Mutiko Alaiak taldeak girotuta
kalejira egingo dute, 19:30ean
hasita. Ondoren, herri afaria
izango da plazan, eta musika.
Arratsaldeko zazpietan,
Torresoroan Iñaki Otxoa de Oltza



Goizperko aparkalekuak.

A.E.

zenaren gaineko filma emango
dute: *Iñakiren ahotsa*. Filmaren
ondoren, SOS Himalaia funda-
zioa aurkeztuko dute. Fundazio-
aren asmoa da Himalaiako ume-
ei laguntza ematea.

PILOTALEKUA ITXITA
Pilotalekua itxita egongo da gaur.
Astelehenean hasi ziren boulder
txapelketarako egokitzen pilota-
lekua. Horregatik, itxita egon da
aste osoan.

> KIROLA
Mendizabalek gainditu egin du Elgetako lehenengo kanporaketa

Aitor Mendizabalek Elgetako lau t'erdiko txapelketa hasi zuen egubakoitzean, eta antzuolarrak aurrera egin zuen txapelketan Mendinueta arabarrari 22-5 irabazita. Mendizabalek partidu oso ona jokatu zuen eta merezitako garaipena lortu zuen.
Mendizabal zuzenean sartu da final-zortzirenetan –iaz finala jokatu zuelako da hori–. Aste bukaeran, falta diren gainontzeko partiduak jokatuko dituzte eta behin irabazleak zeintzuk diren jakinda egingo dituzte final-laurdenetako zozketak.
Mendizabalek 2007an irabazi zuen Elgetako lau t'erdiko txapelketa, Ontsaloren aurka.

> UDALA
Idolazek izendatuko du udalekuetako koordinatzailea

Antzuolako Udalak eta Idolaz elkarteak hitzartutakoaren arabera, Idolaz arduratuko da udalekuetako koordinatzailea izendatzeaz –Udalaren onespenerekin– eta begiraleen lana bermatzeaz.
Antzuolako Udalak 6.750 euroko partida dauka aurreikusita udalekuetarako, eta hitzarmenak maiatzaren 10etik uztailaren 21era arte iraungo du. Partida horrekin, materiala, begiraleak eta koordinatzailea ordainduko ditu Udalak. Egitasmoa aurrera eramateko 13 begirale eta koordinatzaile baten beharra ikusi dute. Udalekuak uztailaren 1etik 15 era izango dira.

MUJIKA
HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

ETXEKO BEREZITASUNAK:
Buztana eta txuleta
(zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martitzenetan itxita

Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

10:30ean irtengo dira eta Arrasateko Aita Menniko gaixoak hartu ondoren Lourdes aldera egingo dute

Bihar Gipuzkoaren Eguna ospatuko dute, eta lehen aldiz Munilla goitzainak zuzenduko du elizkizuna

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Lourdesko (Frantzia) erromesaldian parte hartu behar duten oñatiarrak gaur goizean irten dira autobusez. Guztira, bederatzi gaixo eta 18 laguntzaile egongo dira Lourdesen astelehenera arte. 10:30ean hartu dute autobusa, eta Arrasaten Aita Menniko gaixoak eta laguntzailea hartu ondoren Lourdes aldera egin dute. Ibilbidean hainbat geldialdi egin ondoren, arratsalde erdi-

ELIZA > OSPAKIZUNA

Bederatzi gaixo eta 18 laguntzaile Lourdesko erromesaldian, gaurtik

rako-edo helduko dira. Gogotsu irten dira guztiak: gaixoak ondo pasatzera eta laguntzaileak lan egitera. "Lau egun oso intentsuak dira, bai laguntzaileendako eta baita gaixoendako ere. Gaixoak urte osoan egoten dira bidaia honen zain. Dena den, aurten bi etxean geratu dira, euren eskaerak ez dituzte-eta onartu. Herri bakoitzetik zenbat gaixo doazen Donostian erabakitzen dute", esan digute antolatzaileek.

MUNILLA LEHEN ALDIZ

Lourdesera helduta, lau egunean hainbat ekitalditan hartuko

dute parte: elizkizunak, prozesioak... Aurtengo berrikuntza nagusia Jose Ignacio Munilla goitzainaren presentzia izango da.

Urtero moduan, bihar Gipuzkoaren Eguna ospatuko dute eta gotzainak zuzenduko du gipuzkoarren elizkizuna. Munillak lehen aldiz parte hartuko du.

Bestalde, domekan, nazioarteko meza ospatuko dute Lourdesko plaza handian, eta han ere Munillak parte hartuko du beste apaiz batzuekin.

Gipuzkoa osotik 1.000 lagun inguruk hartuko dute parte erromesaldian.

DIRU-BILKETA

Gaixoen bidaiak ordaintzen laguntzeko diru-bilketa egin zuten apirilaren 11n Oñatiko laguntzaileek. Guztira, 1.670 euro batu zituzten herriko kaleetan eta eliza atarrietan egindako bilketan.

ASTE BUKAERAKO IRTEERA

Gaixoen laguntzaile doazen herri-tarrekin batera beste hainbatekin parte hartuko dute erromesaldian. Horiak bi eguneko irteera egingo dute.

Bihar 06:00etan hartuko dute autobusa, eta domekan bazkaldu ondoren itzuliko dira.



MIREIA BIKUÑA

Bertsolari gaztetxoek jaialdia egin zuten

Ikasturte osoan ahozketasuna eta bertsolaritza landu ondoren, jendaurrean jarri ziren lehen aldiz Elkar Heziko, Errekalde Herri Eskolako, Zuazola-Larraña institutuko eta Txantxiku ikastolako neska-mutikoak. Guztira, 320 ume igo ziren Zubikoako pilotalekuko oholtzara. Lehen Hezkuntzako laugarren mailakoak ziren gazteenak eta DBHkoak zaharreneak.

Bi jaialdi egin zituzten. Ikastetxe bakoitzeko neska-mutikoak gelaka banatu ziren, eta elkarrekin abestu ondoren, taldeka, bina bertso kantatu zituzten zortziko txikian. Ume batzuek mozorrotuta abestu zuten. Bertsolaritzako hiru irakasleek eskerrak eman zizkieten bertso eskolak hartu dituzten neska-mutikoei.

> IKUSKIZUNA

'Astoa saltzen da' musikala Ganbarako kantu eskolakoekin

Ganbarako kantu eskolako neska-mutikoek *Astoa saltzen da* musikala egingo dute bihar Zuazola institutuko aretoan, 18:00etan. Guztira, 40 neska-mutiko igoko dira oholtzara (kantariak eta aktoreak). Zuzendari lanak Miren Gurutze Plazaolak egingo ditu, eta sarrera doan da.

Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte: "Umeendako lehen musikala da, eta ilusio handiarekin ibili dira entseguak egiten. Sarrera irekia da, eta guztiak zaudete gonbidatuta".

> OSPAKIZUNA

Trinitate jaiak ospatuko dituzte Araotzen asteburuan

Bihar eta etzi Trinitate jaiak ospatuko dituzte Araotzen, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Bihar mendi bizikleta irteera (16:00), mus txapelketa (16:30), haurrendako jolasak (17:00) eta bertsolarien eta trikitilarien auzo-afaria (21:00) egingo dituzte. 00:00etan bola jokoa egingo dute.

Domekan, aldiz, 11:00etan meza izango dute. Salda-janaren ondoren, aizkolariek eta harri-jasotzaileek herri kirol jaialdia egingo dute.

> DEIALDIA

Haur danborradako entseguak hasiko dituzte astelehenean

Sanmigeletan egingo duten haurren danborradako entseguak astelehenean hasiko dituzte. Oporrak hartu aurretik sei entsegu egingo dituzte: ekainaren 1ean, 3an, 8an, 10ean, 15ean eta 17an. Errekaldeko lokalean elkartuko dira, 19:00etatik 20:00etara.

Haurren danborradan parte hartuko dute 8-9 urteko umeek, eta bakoitzak ze paper beteko duen zozketa bidez erabakiko dute.

ZELAIA
OÑATI
www.zelaia.net

40
urte
elkarrekin
1970-2010



Euskadi etorbidea 3 - Oñati
943 71 89 49 - 943 78 36 99



Erreforma integralak

gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko



Berezao auzoa - Oñati
943 78 20 08

KIROLA > TXAPELKETA

Koldo Elortza oñatiarra hirugarren sailkatu zen arku tiroketako Euskal Ligan

75 tiratzailek hartu zuten parte aurreko domekan zozo pase gunean jokatu zuten proban

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko Txantxiku Arkulariak taldeak antolatuta Euskal Ligako azken jardunaldia jokatu zuten aurreko domekan Arantzazun. Zozo pasa delako gunean 75 tiratzaile bildu ziren, tartean Oñatiko eta Debagoieneko ordezkariak. Oñatiarren artean onena Koldo Elortza izan zen. Aukerak zituen liga bigarren tokian bukatzeko, baina hirugarren sailkatu zen



Oñatiko proban parte hartu zuten tiratzaileak Arantzazuko zozo pase gunean.

TXANTXIKU ARKULARIAK

arku libre modalitatean. Proban parte hartu zuten beste oñatiarrak izan ziren Gorka Bikuña, Rafa Ugarte, Iñaki Odriozola, Mikel Guisado eta Santi Ugarte.

DEBAGOIENDARRAK

Bestalde, Txantxiku Arkulariak taldeko Jose Luis Fernandez de Arroiabe eskoriatzarra hirugarren sailkatu zen arku zuzenaren

modalitatean; eta Ordizia taldeko Antonio Vidriales eta Irune Lacalle aretxabaletarrak bigarren sailkatu ziren arku biribilduaren modalitatean.

AISIALDIA

Arrikrutz barrutik ezagutzeko irteera bihar

Gesaltza-Arrikrutz-Jaturabe konplexu karstikoa ezagutzeko bisita egingo dute

M.B. > OÑATI

Arrikrutz barne-barnetik ibilaldia egingo dute bihar: bisita berezia Gesaltza-Arrikrutz-Jaturabe konplexu karstikoa ezagutzeko. Hiruzpalau orduko bisita egingo dute, eta interesatuek aldez aurretik eman behar dute izena 943 08 20 00 telefonoan. Bisitara doazenei material eroso, katiuskak eta frontala eroatea aholkatzen diete antolatzaileek.

ESZENTRIKA

Bisita berezi horretan, Marcel Lopurben galeria bisitatzeko aukera izango dute, eta, besteak beste, Arrikrutzeko eszentrika ikusi ahaliko dute.

Hurrengo bisitak egingo dituzte ekainaren 19an, uztailaren 17an eta 31n, abuztuaren 14an eta 28an, irailaren 19an eta urriaren 16an.

oharrak

DEIALDIA

> **Futbolean ibilitako neskek bazkaria egingo dute**

Aloña Mendiko futbol taldean ibilitako neskek bazkaria egingo dute ekainaren 19an. Interesatuek 30 euro sartu behar dituzte

21010057530012628921 zenbakian. Aurretik futbol partidua jokatuko dute.

DEIALDIA

> **Oporren aurreko azken odol-ateratzea ekainean**

Oñatiko odol emaleen taldeak oporren aurreko azken ateratzea egingo du ekainaren 11n, 18:00etatik 20:00etara, ikastolako aretoan. Hurrengo ateratzeak irailean, urrian, azaroan eta abenduan egingo dituzte.

DEIALDIA

> **Oporren aurreko azken odol-ateratzea ekainean**

Oñatiko odol emaleen taldeak oporren aurreko azken ateratzea egingo du ekainaren 11n, 18:00etatik 20:00etara, ikastolan.

sanmartin**berri** SL

ZURE AMETSETAKO ETXEA ZURE BIZITZAKO AUKERA

Oñatin, San Martin ingurune paregabean
3-4 logelako etxebizitzak
Lehen mailako materialak
Lehenengo fasea martxan



Informazioa: San Martin inguruneko informazio puntuan
943 716 137 edo 689 057 438 telefonoan
Idatzi posta elektronikoko bat: salmentak@sanmartinberri.com-era

ADI! Babes ofizialeko etxebizitzetan salmenta libreko garaje itxi eta trastelekuak salgai **PREZIO INTERESGARRIETAN**

UDALA > ‘ARAMAIXO AURRERAKIN PROIEKTUA’

Aurrerakin plana ikusgai jarri dute udaletxean

Herritarrek hilabeteko epea izango dute proiektuaren gaineko iradokizunak egiteko

EDU MENDIBIL > ARAMAIO
Aramaixo aurrerakin proiektua ikusgai izango da astelehenetik aurrera udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Hasiera baten, Udalak ez zuen onartu proiektuaren aurrerapen proposamena eta oraingoan, herritarren eta aholku batzordearen ekarpenak hartu dituzte kontuan. Asier Agirre alkateak emandako informazioaren arabera, 60 bat iradokizun jaso dituzte.

Orain, hilabeteko epean, ekainaren bukaerara arte, hain zuzen, iradokizunak egiteko aukera izango dute herritarrek. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan hainbat paneletan planoak jarriko dituzte ikusgai, eta, era berean, proiektuko dokumentua bera

kontsultatu ahal izango da. Udaletxeko ordutegian izango da zabalik osoko bilkuren aretoa.

Behin iradokizun guztiak jaso eta aztertu ondoren, *Aramaixo-ko aurrerakin proiektua*-ren behin-behineko onarpena eztabaidatuko da osoko bilkuran.

Lau urteko epean aurrera eraman nahi dute aurrerakin plana, 6 milioi euro inguruko aurrekontuarekin. Dokumentuan, Aramaioren ahultasunak eta alde sendo edo erakargarriak jasotzen dira. Esaterako, lehen sektorearen aldeko apustua egitea jasotzen da eta hor jasotzen da *Baserri berri* egitasmoa. Aramaioko ekoizleak marka baten barruan batzea da helburua. Mendixolan kokatuko dute *Agroalde*

deritzon gunea. Bestetik, *Distric Heating* izeneko proiektuan, biomasako galdara jasotzen da. Gas eta gasolioarekin izaten den gastu handia ikusita, Ibarra auzoa egurra oinarri duen berokuntza sistemarekin hornituko da. Udalak herritarrekin bilera egin nahi du datozen asteotan proiektu horren gaineko xehetasunak emateko, baina oraindik ez dute datarik zehaztu.

JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA
Bestalde, San Martin jaietako kartel lehiaketarako lanak aurkezteko epea astelehenera arte, maiatzaren 31ra arte dago zabalik. Adinaren arabera bi maila bereiziko dituzte: gaztetxoan arteko saria Elkar dendetarako 60 euroko bonua da eta nagusiena, berriz, 150 eurokoa. Argibide gehiago udaletxean, 945 44 50 16 telefono zenbakian.



Azkoaga eta Barajuen auzoak, Zabolatik. Atzean, Anboto.

EDU MENDIBIL

UDALA > ZABORRA

Enpresa berria arduratuko da altzariak-eta jasotzeaz

E.M. > BERGARA
Contenedores Escor enpresa arduratuko da aurrerantzean altzari eta bolumen handiko gauzak batzeaz. Auzoetan horrelako zaborrak ateratzeko interesa izanez gero, aurrez 945 29 03 90 telefono zenbakira deitu behar dute interesatuek; gutxienez, 48 ordu lehenago, hain justu.

Bilketa egunak hileko azken egubakoitza izaten jarraituko du. Beraz, zaborra eguen iluntzean atera beharko da ohiko tokietara. Udalak zehaztu duenez, Ibarako auzotarrek ez daukate goian aipatutako telefonora deitu beharrik. Oharra Aramaioko gainerako auzotarrei zuzenduta dago. Beraz, zaborra atera baino lehen telefonoz deitzea eskatzen die Uda-

lak auzotarrei, eta alde aurretik guztien kolaborazioa eskertu. Era berean, Udalak gogortu du Garagartzako Garbigunera ere mota horretako zaborrak eta zerbitzu horrek jasotzen ez dituen gainontzeko zaborrak ere eramateko aukera dagoela.

ERAKUSKETA SASTIÑAN
Bestalde, Patxi Uribarren euskaltzainak gaur Aramaion egin duen sarrera-hitzaldiaren harira, Euskaltzaindiak erakusketa jarri du Sastiñan. Erakusketak bi atal ditu: liburu eta aldizkari ez gain, Pirinioetako hizkuntzen ezaugarrietako batzuk daude ikusgai. Domekara arte dago zabalik, zapatuan 18:00etatik 20:00etara eta domekan 13:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

> HEZKUNTZA
Arrasaten musika ikasketak egiteko laguntzak emango dizkie Udalak herriko langabeei

Hurrengo ikasturteari begira musika ikasketetarako dirulaguntzak emango ditu Udalak. Aramaion erroldatuta egotea, langabea izatea eta Arrasate Musikalen jardutea ezinbestekoa da laguntzak jaso ahal izateko. Eskaerak aurkezteko epea uztailaren 16ra arte izango da zabalik.

> GAZTE ASANBLADA
Herri bazkaria eta kontzertua zapatuan Andra Marin, Eguzkierri Rock jaialdia ospatzeko

Aramaioko Gazte Asanbladak antolatuta, Eguzkierri Rock jaialdia izango da bihar, zapatua. Eguerdirako poteoa iragarri dute, ondorengo bazkaria Andra Mari ermitaren inguruan izango da (txartelak 10 eurotan salgai daude) eta gauean, 22:00etan, kontzertua Trastorno, Alta Tension, Delirium Tren Ez eta GRT taldeekin.

> EMAKUMEA
Zuiako Koadrilako Emakumeen Topaketarako izenematea ekainaren 4ra arte dago zabalik

Zuiako Koadrilako Emakumeen Topaketa izango da ekainaren 11n, arratsalde, Murgian. Topaketa 16:00etan hasiko da eta *Emakume bidaiaria* izenburuko mahai-ingurua izango da 16:30ean. Aramaiotik 15:20ean aterako da autobusa, ikastolatik. Izenematea (doan) ekainaren 4ra arte dago zabalik, 945 43 01 67 telefonon.

LEINTZ GATZAGA > AISIALDIA

Bardeetara doaz Gureleko kideak

Irteera ekainaren 5etik 6ra bitartean egingo dute

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Irteera antolatu du Gurel guraso elkarteak hurrengo aste bukaerarako. Bardeetako natura parkearen ingururuetara (Nafarroa) doaz eta 32 lagunek eman dute izena.

Zapatuan, ekainak 5, irtengo dira herritik goiz samar (08:00) eta Arguedas herrian dagoen Senda Viva natura parkera joango dira. Eguna pasatuko dute han: animaliak bisitatu; urarekin jolas

egin; jolasparkean ibili eta hegaztien erakustaldia ikusi. Ume, gazte eta helduek, guztiek topatuko dute zer ikusi eta zerekin ondo pasatu Senda Vivan.

Lo egitera Bardeen inguruan dagoen kanpinera joango dira eta hurrengo egunean, hilak 6, irteera egingo dute Bardeetako paisaia harrigarria ezagutzeko. Batzuk bizikletan joango dira eta beste batzuk oinez.

Goiz pasa egin eta gero itzulerako bidea hartuko dute; hala, bidean bazkaldu eta 19:00 ingururako etxeratuko direla uste dute antolatzaileek.

EKAINEKO EKITALDIAK
Gurelek aurtan antolatutako bigarren aste bukaera pasa izango da hori. Lehenengoa maiatzaren 1ean egin gura izan zuten herri inguruan lo eginda, baina eguraldia ez zuten izan lagun orduan.

Bestalde, ekainean ludoteka zerbitzuari agur esango dio Gurelek eta San Juan bezperako ekitaldiak antolatuko ditu, udako solstizioari ongiatorria emateko. Eta ezin dira ahaztu uztailko udalekuak; laster hasiko direla egunak zehaztu eta ekitaldiak lotzen jakinarazi dute.

> PILOTA
Dorletako Ama Birjina txapelketako partiduak domekan

Mauri Zubillagak antolatutako pilota txapelketa hilaren 16an hasi zuten, eta domekan jarraipena izango du. Debagoieneko hainbat pilotari dabilta jokatzeko txapelketa, tartean gatzagarriak, eta iraileko Andramari jaietara bitartean izango dira partiduak domeka goizetan –hamabostean behin– Gatzagako pilotalekuan.



Intxorta 1937 kultura elkarteko kideak Asentzion berreskuratutako lubakien gaineko azalpenak ematen. L.Z.

ELGETA > MEMORIA HISTORIKOA

Inaugurazio ekitaldia baino askoz ere gehiago

Egiaren batzordea osatzea eskatu zuten gerrako biktimen senitartekoek

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
Bi urteko lanaren ondorioz, ikusgai daude Elgetan 36ko gerraren inguruko harreragunea eta Asentzioko lubakiak. Domekan Espaloian egindako ekitaldia inaugurazio ekitaldi bat baino askoz ere gehiago izan zen.

Euskal Herriko txoko askotatik etorritako jendea batu zen bertan, eta une oso hunkigarriak bizi izan ziren; hunkigarriak eta gogorak. Intxorta 1937 kultura elkar-teak prestatutako ikus-entzunezkoak oroitzapen latzak ekarri zituen askorendako. Beste asko lehen aldiz jabetu ziren 1937an elgetarrek sufritutako izugarri-keriaren tamainaz.

EKITALDI HUNKIGARRIA
Antzokia jendez lepo egon arren, 1937ko apirilko bonbardaketa-tako eztandek erabateko isiltasu-na eragin zuten aretoan, eta emo-zioei eustea ez zen batere erraza izan hainbat lagunen lekukota-sun gordinak entzunda. "Ekital-diok berandu datoz", esan zuen

bere agerraldian Oxel Erostarbe alkateak. "Irabazleek ezkutuan gorde nahi zuten gertatutakoa. Gaur abiarazitako bidea isiltasun hori apurtzera dator".

BIDE LUZEA EGITEKO
"Egia jakiteko eskubidea dugu", esan zuen Turismo zinegotzi Edurne Alberdik, "eta eskubide horrek urratuta jarraitzen du

IRITZIAK



Rufina, Miren, Abelina eta Felisa
Gerra garaikoak



Julia Gaztelu
Irun



Maria Jesus Aranburu
Kultura diputatua

Gerrak 15 bat urterekin harrapatu zituen eta hamaika ikusitakoak dira laurak. Domekako ekitaldian izan ziren: "Oso hunkigarria izan da. Guk ondo ezagutzen ditugu gerrako gorabeherak, baina gaur egungo gazte askok ez". Garrantzitsua iruditzen zaie historia berreskuratzea.

"Senarra gaur hemen bota duten ikus-entzunezkoan agertzen da, eta ikustera etorri gara. 14 urte zituen gerra hasi zenean. Ekitaldi polita izan da, oso hunkigarrria, benetan!".

oraindik". Intxorta 1937 kultura elkarteko Juan Ramon Garai iritzi berekoa da. "Ez da oraindik biktima guztien zerrenda ofizialik egin", salatu zuen. "Guk *Izen guztiak*, *aurpegi guztiak* izeneko egitasmoan 12.300 izen batu ditugu dagoeneko, eta aurpegia ipini diegu horietako 815i".

Ekitaldian, egiaren, justiziarren eta erreparazioaren alde hitz egin zuen, halaber, Kultura diputatu Maria Jesus Aranburuk. "Orain arte besteek kontatutako historia ezagutu dugu. Guk, gure bizipenetatik kontatzea ezinbestekoa da", esan zuen.

Joseba Tapiaren musikak borobildu zuen ekitaldia; *Agur Intxorta maite* diskoko piezak jo eta abestu zituen; gerra garaikoak guztiak ere.

ASENTZION, LUBAKIAK
Espaloiko harreragunean hasitako ekitaldiak Asentzion berriki berreskuratutako lubakietan izan zuen jarraipena. Bertaraino hurbildutakoek frontea non eta zelan kokatuta egon zen ikusteko aukera izan zuten. "Gaurkoa lehen urratsa besterik ez da", esan zuen Oxel Erostarbe alkateak, "eta bidelagun izan ditugunak eskertzeko eguna da". Juan Ramon Garaik gaineratu zuen zapatuan bertan beste bi lehergailu aurkitu zituztela *La Belga* deituriko gunean.

AISIALDIA

Domekan, Herrixa Dantzan ekimenaren azken saioa

Irailean berriz ekingo diete saio horiei; bitarte horretarako beste bi hitzordu egin dituzte

L.Z. > ELGETA
Domekan, hilak 30, Herrixa Dantzan ekimenaren ikasturteko azken saioa egingo dute Espaloian, 19:00etan hasita. Izandako arrakasta ikusita, antolatzaileek erabaki dute irailetik aurrera saio horiei jarraipena ematea.
Bien bitartean, baina, egongo da dantzarako aukera gehiago herrian, Ekainaren 12an, Koadrilen Egunean, Arrabots taldeak girotuko du bazkalostea. Herriko Plazan izango da hori. Eta Ferixa Nagusiko jaietan, berriz, uztailaren 3an, Jainaga eta Narbaiza bikoteak egingo du erromeria.

MOTOR JAIA PRESTATZEN
Hemen da Elgetako III. motor jaia ere. Hurrengo aste bukeran izango da eta egitarau zabala prestatu dute antolatzaileek. Ekintza gehienak herritar guztiendako zabalik egongo dira. Bariku gauean, esaterako, boleta txapelketa egingo dute bolatokian. Zapatuan, berriz, motor erakusketak egongo da Espaloian, eta Los Cretinos eta Snobs taldeek joko dute gaztetxean. Aurtent, gainera, erakusketako motor onenaren saria publikoak emango du boto bidez. Informazio gehiago *motorjaixa.blogspot.com* helbidean aurkituko duzue.

Ehun-gaien kudeaketa, erakusketara

Eguaztena ezkerro, Emaus fundazioak Udaleko Ingurumen batzordearekin elkarlanean ipinitako erakusketa dago Espaloian. Ekimenak sentsibilizazioa du helburu; izan ere, arropa ere birzikla eta berrerabil daiteke. Gure eskualdean Emaus fundazioak egiten du kudeaketa hori. Prozesua zein den eta nola egiten den jasotzen du hilaren 30a arte ikusgai egongo den erakusketak.



L.Z.

oharrak

EUSKOVISION
> Eurovision jaialdiaren jarraipena egingo dute Espaloian
Zapatuan, Eurovision jaialdiaren jarraipena egingo dute antzokian, 21:00etan hasita. Bi pantaila ipiniko dituzte: batean, Eurovision emango dute; bestean, iruzkinak erakutsiko dituzte. Ekitaldi irekia da.


IBILGAILUEN ARAUTEGIA
> Alegazioak aurkezteko epea ekainaren 19ra arte
Arautegi berria aztertu eta alegazioak aurkezteko epea zabalik dago. Arautegia udal webgunean eta udaletxean dago ikusgai.

MENDI IRTEERA
> Ekainaren 3an Uharte Arakil aldera joango dira
Ekainaren 3ra arte dago izena emateko aukera. Ibilbidea: Uharte Arakil-Beriain-Uharte Arakil. 5-7 ordukoa.
Prezioa: 10 euro. Argibideak udaletxean edo *ozkarbi.menditaldea@gmail.com* posta elektronikoan.

ERRETIRATUAK
> Arantzazun egingo dute arratsalde pasa ekainaren 1ean
Gaur amaitzen da izena emateko epea. Plana da Arantzazuko bidegorria egitea. Elgetatik 15:00etan abiatuko dira.



> EKITALDIA
Patxi Uribarrenek Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia egingo du **> 33**



> KONTZERTUA
Ahots eta gitarra bikainak, etzi Musikaldiak bukatzeko **> 33**

> ANE MIREN MUGURUTZA
Antzuolarra da, eta Bergarako Ariznoa gimnasia erritmiko taldean dabil; probintziako txapelketan lehenengoa izan zen **> 34**



Ojos de Brujo taldeak bihar, zapatua, egingo du kontzertua Mundumiran, 23:00etan.

GOIENKARIA

Antzuolarren inplikazioarekin hasiko da bihar Mundumira

BOLUNTARIOAK Herriko 280 lagunek boluntario lanak egingo dituzte jaialdiak iraun bitartean

JAIALDIAREN ARDATZAK Kaleak, musika, natura eta ondarea, eta gizarte ekimena

NEREA MENOR > ANTZUOLA

Lurralde askotatik etorritakoen topagune bihurtuko da Antzuola bihar eta etzi. Munduko kulturak elkartzeko dena prest dago herrian.

Mundumira jaialdiaren 6. edizio honetan, herri txiki batean egitea da berritasunik handiena, horrek dakartzan ondorioekin. Jaiaren antolaketa, Antzuolako Udalaz gainera, *Euskal Herria* aldizkariak, Gintonic ekoizpen etxeak eta Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak parte hartzen dute.

Kaleak kolorez eta musikaz beteko dira egunotan eta jaialdia inguruko herri eta mendietara ere helduko da.

MUNDU OSOKO GASTRONOMIA

Bi egunera mugatuko da aurtien Mundumira, baina ekintzak ez dira gutxiago izango eta inoiz baino postu gehiago egongo direla adierazi digu Antzuolako Udalak. Artisauen 30 postu egongo dira; "guztia %100ean artisautza-koak izango dira", adierazi digu Gintonic produkzio etxeak. Azoka txiki bat ere egongo da, "elika-dura biologikoa, Biolur eta Goia-beko plater kozinatuak" erakusteko. Gastronomia postu ugari izango dira, eta berritasun asko: taberna argentinar, galaiko eta alemana; Pakistango postua; gozoki arabiarren gunea; eta artisau pizzak. Horieta erositakoa, edota kanpotik ekarritakoa, gustura

jan eta edateko, plazan mahaiak eta jarlekuak egongo dira. Azken postu horiek egubakoitz arratsaldean zabalduko dira.

HERRIAREN INPLIKAZIOA

Herri txikia izanik, bertako tabernak eskariari aurre egiteko nahikoa izango ez direla aurreikusten da. Horregatik, janari eta edariak dituen txosna bat ere jarriko dute. Bertan, herriko 140 boluntario ari-tuko dira lanetan. Zapatuan 2.000 ogitarteko egitea aurreikusten dute eta domekan 1.000 inguru.

DATUA

61

POSTU

Postu asko izango dira aurtengo jaialdian. Gastronomiak 16 postu izango ditu, taberna eta guneei dagokienez. Gastronomia eta Biolur nekazaritza ekologikoak, aldiz, 15. Artisauak 30 postu izango dituzte.

Antzuolako kirol elkarteak, Oinarin dantza taldea eta Anelkar elkarteak arduratu dira txosnaz.

Txosnetan ez ezik, herritar asko aurkeztu ziren jaialdian lan egiteko prest. 120 lagun ari-tuko dira zirkulazio eta garraio-ari dagozkion guztia antolatzen eta beste 20k zaborra bilduko dute jaialdia ospatu bitartean. Elkarlan hori jaialdiak herrira ekarri duen aspektu positiboetako bat izan dela adierazi digu Udalak. Bizilagunak antolakuntzan inplikatu dira eta ia galtze-ar zegoen elkarlana, auzolan hori, berreskuratu egin dela jakinarazi digute.

JAIALDIAREN ARDATZAK

Mundumirako jarduerak lau ardatzen inguruan gauzatuko dira: lehenengoan, kalea izango da nagusi: jarduerak eta azokak kalean egongo dira; bigarrenean, mundu osoko musika entzungai: kalejirak, kontzertuak... Beningo Gangbe Brass Band, Baião Brasil, Senegalgo Thomso...; hirugarrenean, eskualdeko ondare kul-

turala eta naturala ezagutzeko dauden aukerak eta kirol ekitaldiak. Tartean, Euskal Herriko boulder txapelketa eta BTT zeharkaldia; azken hori Aia-tui txirindulari elkarteak antolatu du eta taldean egiteko irteera izango da. Bidea erraza dela eta bi ordu inguru iraungo duela adierazi dute. Uzarragan hasiko da eta puntu horretan bukatuko da baita ere.


Laugarren ardatza Euskal Herri osoko gobernu kanpoko erakundeek garatzen dituzten proiektuak ezagutzeko aukera da. Haien proiektuak bultzatzeko, jaialdiko elastiko solidarioaz ateratako dirua erabiliko da.

UMEEN GUNEA

Umeendako tarteak ere izango da jaialdian. Jolaserako eta denbora-pasarako gunea propioa izango dute, elkargunea. Begiraleekin aurpegiak margotu, gorputzean tatuajeak marraztu eta musika instrumentuak egingo dituzte.

(32. orrialdean jarraitzen du)

MUNDUMIRAKO GUNEAK



Autoa etxean laga eta autobusa hartu

Mundumirara garraio publikoan joateko gomendioa egin du Udalak, Antzuolan ez delako aparkalekurik izango.

Autobus zerbitzu bereziak jarriko dituzte Debagoieneko herri guztietan. Alde batetik, Eskoriatzan hasi eta herririk herri geldialdiak eginez Bergararaino helduko den linea izango da eta beste bat Eskoriatzatik Antzuolara helduko dena. Oñatitik Bergarara ere, bi egunean zehar autobus asko ibiliko dira.

Beste aldetik, Oñati-Legazpi-Zumarraga-Urretxu-Bergara egiten duen autobusa etengabe arituko da. Gatzaga eta Elgeta Bergarekin lotuko dituzte eta Bergaratik eta Zumarragatik autobus bereziak jarriko dituzte. Debagoieneko herrietara bueltatzeko, eta baita Zumarragara iristeko ere, gaueko autobusak egongo dira zapatuan 06:00ak arte, gutxi gorabehera. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo www.pesa.net webgunera.

Kanpoko autoentzat, Urretxu-ko Mugitegi industrialdean eta Bergarako Labegaraietan aparkalekuak egokitu dira. Bertan geldialdia egingo dute Antzuolara abiatuko diren autobusek.

ANTZUOLAKO UDALA

Azokaren kokapena eta jarduerak egingo diren lekuak begi kolpe batez ikusgai Antzuolako planoan.


Egitaraua

EGUBAKOITZA, 28

19:00 *Iñakiren ahotsa* pelikulare proiektzioa. Torresoroa kultura etxean.
20:00 SOS Himalaia fundazioaren aurkezpena.

ZAPATUA, 29

09:00 Igoera: Antzuolako Iturriak. Landarraitz-Lizargarate-Arrola-Deskarga.
11:00 Kultura ibilbideak Debagoienako Turismo zerbitzuaren eskutik.
III. autokarabana kontzentrazioa, Goizperko aparkalekuan.
Mundumirari bira Elkar dendaren marrazki lehiaketaren erakusketa eta sari banaketa ekitaldia.
Mundumira elastikoaren aurkezpena.



11:00 Azoken irekiera: mendi eta senderismo azoka, artisautza, gastronomia eta Biolur nekazaritza ekologikoaren azoka. GGKE-Elkartasun foroa; proiektu, ikus-entzunezko eta erakusketen aurkezpena.
Elkar umeen gunea: umeentzako lantegiak, tirolina, tibetar zubia eta ohe elastikoa. Frontoi inguruan.
11:00 Euskal Herriko boulder txapelketa, frontoian.
11:30 Turismo arduratsua: Elkartasun Bidaia 2010. Aurkezpena Olaran etxean.
12:00 Klak!Son (Antzuola) eta Rumba Vella (Katalunia) Mundumira agertokian.
12:30 Hitzaldia: *Nekazaritza ekologikoa Iparraldean*, Olaran etxean.
13:00 Malabarcirco taldearen *Circo animado* ikuskizuna.



13:30 Gipuzkoako Bideak, *Mendiz mendi eta mendez mende* proiektuaren aurkezpena.
16:00 BTT zeharkaldia Uzarraga auzotik.
17:00 Kalejira, BTK Batukada (brasildar musika) taldearen eskutik.
17:00 Azoken irekiera. Elkar umeen gunea.
17:00 Munduko dantzak ikasteko tailerra, Zurrategi plazan.
17:00 Euskal Herriko boulder txapelketa, frontoian.
17:30 *Otras realidades* film laburren jaialdiaren III. edizioa, Torresoroa kultura etxean.
18:30 Ikus-entzunezkoa: *Islandia tierra de hielo y fuego en autocaravana*, Olaran etxean.



18:00 Kale animazioa. Tiritirantes taldea: *Escuela de vuelo* ikuskizuna.
19:00 Baião Brasil (Brasil) Mundumira agertokian.
20:00 Aikedarle (perkusio afrikarra) taldearekin animazioa.
21:15 Gose (Euskal Herria) Mundumira agertokian.
23:00 Ojos de Brujo (Katalunia). Mundumira agertokian. Flamenkoa, hip-hop, reggaea eta bestelako erritmoak.



DOMEKA, 30

09:00 Ibilaldia: Antzuola auzoz auzo trenbidean zehar.
11:00 Kultura ibilbideak.
11:00 Azoken irekiera.
Elkar umeen gunea.
11:00 Herriko txistularien kalejira.
11:00 Musika kalejira: Oihulari Klown

taldearen *Otiacicoch* ikuskizuna. 1500. urteko indigenak gurera datoz.
11:00 Boulder erakustaldia, frontoian.
12:00 Eusko labeldun txahal bat erreko da, Kalebarrenen.
12:00 Girasons (Auditori de Barcelona) umeendako kontzertu didaktikoa. Mundumira agertokian.
13:30 Thomso (Senegal) Mundumira agertokian.
16:00 Ipuin kontalariak Oihulari Klown taldearen eskutik, Zurrategi plazan.
16:00 Antzuolako Trikitixa Eskolaren emanaldia.
17:00 Gangbe Brass Band (Benin) taldearekin animazioa. Jazzaren eta Beningo musika tradizionalaren arteko nahasketa.
17:00 Azoken irekiera.
18:00 Gangbe Brass Band (Benin) eta Tacumah Reggae Band (Euskal Herria), Mundumira agertokian.

Carrascal aroztegia

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BAINURAKO ALTZARIAK
HORMA ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK

Ekutio 4, Pab. 14-15
Uribarri Auzoa
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 01 82
scarrasc_1@infonegocio.com

FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA



ESKaintza BEREZIAK!

UDALAREN OHARRAK

Udaletxean koordinazio puntu bat egongo da arazoei irtenbidea emateko

Antzuolara autobusez joateko gomendioaz gainera, beste hainbat gauza jakinarazi nahi izan ditu Udalak: alde batetik, Antzuolara iristeari dagokionez, alkohol probak izango direla adierazi dute; bestetik, jendea errepide nagusian ez ibiltzeko dei egin dute. "Debekatuta egongo da bertan ibiltzea", esan du Udalak. Beraz, herrira oinez joan nahi duenak goiko trenbide zaharra erabili beharko du.

Edozein arazo izanez gero, horri irtenbidea aurkitzeko koordinazio gune bat egongo da, egun osoz, udaletxean. Bertan, zirkulazioko jendea, Ertzaintza, DYAKoak eta udaletxeko jendea izango dira. "Edozertarako, bertara hurbildu edota telefonoz deitu 943 76 62 46 zenbakira". Jaialdiaren gaineko azalpenak lortzeko -egitaraua, ekintzak eta abar- informazio puntu bat ere izango da herrian.

Patxi Uribarren > Euskaltzain osoa

"Gaur, bizitza osoko lagunekin egoteko aukera paregabea izango dut"

MIRIAN BITERI > ARAMAIO
Patxi Uribarren aramaioar euskaltzain osoaren sarrera-ekitaldia izango da gaur, egubakoitza, Ibarrako San Martin elizan. Hain zuzen ere, *Zirelako gara, garelako izango dira* izenburuko hitzaldia egingo du. Horren gainean eta orokorrean euskararen egoeraz hitz egin digu Uribarrenek datozen lerrootan.

Egun berezia izango da gaurkoa zuretake, ezta?
Kanpoan bizi arren, beti izan ditut harreman estuak Aramaio-rekin. Elizgizona izanik, sarri izaten naiz bertako elizkizunetan. Toponimia lana egin nuenetik jende asko ezagutzen dut. Egun horretan, bizitza osoko lagunekin elkartzeko aukera paregabea izango dut.

Noiztik zara Euskaltzaindikokide?
1971ko irailaren 24an egin ninduten euskaltzain urgazle. Eta Enrike Knörr jauna hil zenean, euskaltzain oso (2008-09-24), Arabako ordezkari izateko.

Ordutik gaur arte nola aldatu da zure bizitza?
Ez dut aldaketa handirik izan. Adorez hiztegi-sorta berriztatzen jarraitu dut: Adorez hiztegiak (handia) eta Motxilako hiztegia (txikia) prestatzen. Horrez gainera, Euskaltzaindiko lau batzordetan dihardut lanean.

Zer diozu Aramaion euskarak gaur egun duen presentziaz?
Beste hainbat lekutan moduan, erabilera egoera larrian



Patxi Uribarren aramaioarra.

GOIENKARIA

ikusten dut. Hala ere, nire ustez, badu etorkizunik, euskaldun kopuru handia (%80 inguru) dugu-lako bertan. Batez ere, egunero-ko erabilera areagotu behar dugu.

Eta Euskal Herrian, orokorrean, zelan ikusten duzu?
Euskarak aurrerakuntza handiak egin ditu azkenaldian. Eus-
kalguneak sortu beharra dugu, batez ere. Gure herriak orain arte agertu izan duen gogo sen-

doari eusten badio, lortuko dugu aurrera egitea.

Bestalde, sarrera ekitaldia aprobetxatuz, Euskaltzaindiak erakusketa bat antolatu du Aramaio-ko Sastiñan. Zer ikusi ahal-ko dugu han?
Euskaltzaindiaren historia aurkezteaz gainera, Aramaio-ko idazleen lanen berri ematen da. Jendeak herriko idazleak ezagutzeko aparteko aukera izango du.

MUSIKA

Errepertorio klasikoa dute etzi Oñatin

Ainhoa Zubillagak, Olatz Saituak eta Eugenio Tobalinak eskainiko dute

M.B. > OÑATI
Oñatiko Udalak eta Gipuzko-ako Diputazioak antolatu duten 32. Musikaldia amaitu-ko da asteon. Zuzendari entzu-tetsuen gidaritzapean aritu diren Ainhoa Zubillaga mez-
zo-sopranoak eta Olatz Saitua sopranoak errepertorio kla-sikoa eskainiko dute euren ahotsen goxotasunean, Euge-nio Tobalina gitarra-jotzai-lea lagun izango dutela. Etzi, domeka, izango da musika emanaldia Santa Ana antzo-kian, 19:30ean.

LAU EUSKAL MUSIKARI
Urrundik lelopean, honako musikarien piezak entzungo dituzte hara joaten direnek: Murgia, Aita Donostia, San-juan, Iparragirre, Tomas Muxika eta Sorozabalenak, hain justu ere.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuarte esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Ane Miren Mugurutza > Ariznoa taldeko gimnasta

"Ariketa osoa ondo egitean geratzen zaizun sentimendua da gauzarik onena"

Txikitatik gustatzen zaio Ane Miren Mugurutzari gimnasia erritmikoa. Horregatik, Ariznoa taldeko gimnasta da duela 6 urtetik. Apirilean Bergararako txapelketa probintzian, kadete mailan lehenengo postua lortu zuen antzuek larrak. Gimnasia erritmikoa gain, DBHko hirugarren maila egiten dihardu Bergarako Ipintza institutuan.

NAROA ODRIÓZOLA > ANTZUOLA

Ane Miren Mugurutza txikitik ipurterre hutsa zen. Gainera, malgutasuna ez zuen faltan eta horregatik hasi zen gimnasia erritmikoan. Ordutik hona Ariznoa taldeko gimnasta da antzuelarra. Entrenamendu eta ikasketen artean, astea lanpeturik dauka Mugurtzak. Hala ere, guri lekutxo bat egin digu bere agendan.

Zenbat urte daramatzazu gimnasia erritmikoa egiten?

Txikitatik nabil gimnasia erritmikoan; 8 urte nituenetik. Beraz, 6 urte daramatzat.

Zergatik aukeratu zenuen kirol hori?

Ez nintzen geldi egotekoa. Gimnasia erritmikoa gustatu zitzaidan eta, malgutasuna nuen, probatzea erabaki nuen.

Hasi zinenetik Ariznoa taldean zaude?

Bai; Antzuolan ez dago talderik eta Bergarako taldeekin elkartzen gara. Kasu honetan, Ariznoa taldearekin.

Gimnasia erritmikoa kirol gogorra ei da.

Hala da, bai. Entrenamendu gogorrak izaten dira eta orduak sartu behar dira. Orain, ohituta nagoela, ez zait hainbesterako iruditzen, baina hasieran oso gogorra zen. Astea hiru egunez joaten naiz entrenatzera eta hiru ordu eta erdiko entrenamenduak izaten dira; bostetatik zortzi eta erdietara.

Apirileko txapelketa probintzian lehenengo postua lortu zenuen kadete mailan. Espero zenuen?

Ez nuen espero. Dezentetan egin nuen huts bakarkako entrenamenduetara. Horregatik, ez nuen irabaztea espero.

Bakarka egiteaz gain, taldeko koreografieta ere parte hartzen duzu?

Bai, normalean biak egiten dira. Hala ere, nahiago dut bakarka egitea, akatsen bat egiten badut nire errua delako eta nik zuzendu behar dudalako. Taldeko koreografieta, aldiz, batek akatsa eginez gero, guztioi eragiten digu.

Zein aparailu erabiltzen duzu?

Orain mazoekin nabil, baina pilota, uztaila eta soka ere probatu ditut. Pilota eta uztaila iruditzen zaizkit zailenak, ez ditut eta ondo kontrolatzen.



NAROA ODRIÓZOLA

PERTSONALA

Herria: Antzuola. **Adina:** 14 urte. **Ikasketak:** Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren maila egiten dihardut Bergarako Ipintza institutuan. **Zaletasunak:** Gimnasia erritmikoa, bizikletan ibiltzea... **Gimnasta bat:** Anna Bessonova. **Gimnasia**

erritmikoko aparailu bat: Mazoak. **Ikusitako azken filma:** Shane Meadows-en *This is England*. **Helburu bat:** Txapelketetan emaitza onak lortzea. **Bizi izateko herri bat:** Antzuola. **Bisitatu nahiko zenukeen herri bat:** Erroma.

Aparailuak kategoriekin lotuta daude?

Bai, adinaren arabera egiten dira kategoriak, eta aparailuak kategoriaren arabera izaten dira. Aurrebenjaminetan esku librean egiten dira. Alebenetan pilotarekin hasten dira eta bakarkakoetan, esku librean eta soka. Infantiletan uztaila erabiltzen da. Kadetetan, mazoak eta uztaila. Nagusiak zintarekin aritzen dira.

Gimnasia erritmikoko alde-rik onena zein da?

Ariketa osoa ondo egiterakoan gelditzen zaizun postasun sentimendua eta asebetetzea.

Noiz izango da hurrengo txapelketa?

Ekainaren 6an izango da, baina oraindik ez dakigu non, talde bakoitzak leku baten izaten duelako.

Gimnasia erritmikoan jantziek arreata ematen dute. Non-dik ateratzen dituzue?

Txikitik, nagusien jantziak erabiltzen dira. Batzuetan, entrenatzaileak diseinatu dituzte. Adin batetik aurrera guk ere diseinatu ditugu paper baten. Guk diseinatu ditugunean, entrenatzaileari erakusten dizkiogu eta gustatzen bazaizkio eta musikarekin bat egiten badute, Donostiara bidaltzen ditu egiteko.

Nola antolatzen duzu astea?

Ez dakit. Astea zehar ez daukat denborarik ezertarako ere. Eskolatik irtetean partikularrak izaten ditut edo bestela entrenamenduak.

Gimnasia erritmikoa gain, bestelako kirolak egin duzu sekula?

Txikitik, eskola kirolean nengoen eta bertan denetik egiten nuen.

Instrumenturik jotzen duzu?

